



EHUNGINTZA,
JANTZIGINTZA ETA
LARRUGINTZA



Oinarrizko Curriculum Diseinua

NEURRIKO JANTZIEN ETA
IKUSKIZUNETAKOEN
GOI-MAILAKO
TEKNIKARIA



AURKIBIDEA

1.	TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2.	LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	4. or.
2.1	Konpetentzia orokorra	
2.2	Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3	Lanbide-ingurunea	
3.	HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK	5. or.
3.1	Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2	Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3	Lanbide-moduluak	
1.	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak	
2.	Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak	
3.	Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea	
4.	Ikuskizunetako jantziak	
5.	Joskintza klasikoa	
6.	Moda eta jantzeko joerak	
7.	Neurriko jantziak diseinatzea	
8.	Neurriko jantziak egitea	
9.	Neurriko jantzien eta ikuskizunetako proiektua	
10.	Ingeles teknika	
11.	Laneko prestakuntza eta orientabidea	
12.	Enpresa eta ekimen sortzailea	
13.	Lantokiko prestakuntza	
4.	GUTXIENEO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	103. or.
4.1	Espazioak	
4.2	Ekipamendua	
5.	IRAKASLEAK	105. or.
5.1	Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6.	LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	106. or.
7.	TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK	107. or.
7.1	Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2	Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Neurrirako eta ikuskizunetarako jantzieta goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Neurritako eta ikuskizunetarako jantziak.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentzia: CINE-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1. Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da, norberaren edo beste batzuen diseinuak abiapuntu izanik, neurritako jantziak egitea eta jostuntzaren, jostuntzaren eta ikuskizunen esparruko prozesuak ezartzea, antolatzea eta egitea, bezeroen eskakizunei jarraituta, beharrezko kalitatea izango duten jantzi bideragarriak lortzeko.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a) Ehunezko eta larruzko neurritako jantziak egitea TCP470_3 (1224/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC1513_3: Jantzeraren zilueta, erabileretako eta ohituretako aldaketari buruzko informazioa bilatzea eta dokumentatzea.
 - UC1514_3: Jantziak neurritako egiteko baliabideak kudeatzea.
 - UC0913_3: Manikiaren gainean jantzien modeloak garatzea.
 - UC1515_3: Neurritako jantzietaarako patroiak sortzea.
 - UC1516_3: Neurritako jantzietaarako ebaketa, jantzigintza, proba eta akaberetako prozesuak gainbegiratzea eta egitea.
 - UC1237_2: Neurritako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

- a) Ehunezko eta larruzko jantzien patroiak egitea TCP286_3 (1199/2007 Errege Dekretua, irailaren 14koa).
 - UC0474_3: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak, produktuak eta prozesuak aztertzea.
 - UC0912_3: Ehungintza eta larrugintza diseinua aztertu eta interpretatzea, eta produktua zehazten laguntzea.
- b) Ikuskizunetarako jantziak egitea TCP471_3 (1224/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa).
 - UC1518_3: Jantzien garapena planifikatzea, proiektu artistikoaren jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik.
 - UC1519_3: Ikuskizunetarako jantzien modeloak, patroiak eta ebaketa egitea.
 - UC1521_3: Ehunezko materialak eta ehunezkoak ez direnak transformatzea, ikuskizunetako jantzieta erabiltzeko.

2.3. Lanbide-ingurunea

Titulu hau lortzen duten pertsonak neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintzaren sektorean egiten dute lan, enpresa txiki eta ertainetan, besteren kontura zein norberaren kontura, baita enpresa handietan ere, besteren kontura, eta enpresa horietan elaborazio-funtzioak, nagusiki, eta baliabideak diseinatzeko eta kudeatzeko funtzioak betetzen dituzte.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Jantzien modelogilea eta patroigilea
- Neurrirako jostuna.
- Ikuskizunetarako jantzigintzako jostuna.
- Joskina.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Erreklamazioen komunikaziorako eta kudeaketarako teknikak identifikatzea, bezeroaren beharrei erantzuteko datu garrantzitsuak hautatuta.
2. Jantzigintzako, ehungintzako eta larrugintzako produktuak aztertzea, materialen, osagaien eta produkzio-prozesuen identifikaziorako, horien diseinurako eta ondorengo industria-lanketarako.
3. Jantzietan modaren joeren bilakaera aztertzea eta garai bakoitzeko testuinguru sozioekonomikoarekin eta teknologikoekin lotzea, informazio-iturriak eraginkortasunez erabiltzeko.
4. Neurrirako jantzigintzarako modeloak eta patroiak egiteko prozesua identifikatzea, produktu berritzaileak egiteko beharrezko eskuko teknikak eta informatika-tresnak aplikatuta.
5. Ehungintzako eta larrugintzako, eta oinetakogintzako eta larrukigintzako, produktuen materialak eta osagaiak aztertzea eta, horretarako, horien ezaugarriak kontuan hartzea, produktuak egiteko egokienak hautatzearen.
6. Neurrirako jantziak manikiaren gainean garatzea eta, horretarako, jantzigintzako teknikak aplikatzea, jantziak modelatzeko.
7. Neurrirako jantziak egiteko materialen beharrak zehaztea eta, horretarako, ebaketako teknikak aplikatzea, baliabideen aprobetxamendua bermatzeko.
8. Beharrezko eragiketen, baliabideen, kalitate-kontrolen eta segurtasun-baliabideen sekuentzia zehaztea eta, horretarako, lan-programazioaren teknikak aplikatzea, neurrirako jantzien kalitatea eta emate-epeak ziurtatzeko.
9. Neurrirako jantzigintzaren oinarritzko trebetasunak garatzea eta, horretarako, ebaketa eta mihiztadurako teknikak aplikatzea, kalitate- eta segurtasun-estandarrak bermatzeko.
10. Neurrirako jantziak eta jantzi-jokoak egitea, eta, horretarako, neurrirako jantzigintzako teknikak aplikatzea eta neurrirako jantzigintzako proben ondoriozko doikuntzak egitea, bezeroaren beharretara egokituta.
11. Ikuskizunetarako jantziak eta osagarriak egitea, eta, horretarako, neurrirako jantzigintzako teknikak aplikatzea eta ikuskizunetarako jantziak eta osagarriak egiteko proben ondoriozko doikuntzak egitea, proiektu artistikoaren jantzi-marrazkietara egokituta.
12. Jantzigintza klasikoko jantziak eta jantzi-jokoak egitea, eta, horretarako, neurrirako jantzigintzako teknikak aplikatzea eta jantzigintza klasikoko jantziak eta jantzi-jokoak egiteko proben ondoriozko doikuntzak egitea, bezeroaren beharretara egokituta.

13. Materialen, produktuen eta informazioaren fluxuak kudeatzea, neurrirako jantzigintzan logistikaren oinarritzko teknikak aplikatuta, betiere lehengaiak metatzeko eta amaitutako produktuak biltegitatzeko eta banatzeko.
14. Neurrirako jantzigintzaren kostuak kalkulatzeko, neurrirako jantzigintzako proiektuen aurrekontuak egiteko merkatuko prezioak aplikatuta.
15. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
16. Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
17. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeheriei aurre egiteko eta horiek ebazteko.
18. Gidaritza, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldean antolamendua eta koordinazioa errazteko.
19. Komunikazio-estrategiak eta teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzailen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
20. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
21. Irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari erantzuteko beharrezko lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
22. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.
23. Ekintzailetzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
24. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0276. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak	165	1.a
0585. Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak	297	1.a
0586. Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea	80	2.a
0587. Ikuskizunetako jantziak	120	2.a
0588. Joskintza klasikoa	160	2.a
0589. Moda eta janzteko joerak	165	1.a
0590. Neurriko jantziak diseinatzea	140	2.a
0591. Neurriko jantziak egitea	264	1.a
0592. Neurriko jantzien eta ikuskizunetakoen proiektua	50	2.a
E-200. Ingeles teknikoa	40	2.a
0620. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0900. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
0901. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
Zikloa guztira	2.000	

3.3 Lanbide moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

1

1. lanbide-modulua

EHUNGINTZAKO, JANTZIGINTZAKO ETA LARRUGINTZAKO MATERIALAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak
Kodea:	0276
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0474_3: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak, produktuak eta prozesuak aztertzea.
Helburu orokorrak:	5.a / 19.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Jantzigintza industrialeko produktuetan erabiltzen diren materialak identifikatzen ditu, eta proba eta saiakuntza egokien bidez haien propietateak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ehungintzako materien eta produktuen ezaugarriak eta propietateak deskribatu ditu.
- Ehungintzako materiak motaren arabera sailkatu ditu.
- Materien eta produktuen propietateak baldintzatzen dituzten parametroak neurtu ditu, tresna eta prozedura egokiak erabilia.
- Ehungintzako materiak eta produktuak identifikatzeko ezarritako prozedurak deskribatu ditu.
- Fabrikatu nahi den produktuaren arabera materiak hautatzeko jarraitu beharreko irizpideak identifikatu ditu.
- Ehungintzako materien akats ohikoenak deskribatu ditu.
- Ehungintzako materien sinbologiari buruzko araudia ezagutu du.
- Ehungintzako materien erabilerak eta aplikazioak deskribatu ditu.

- i) Ehungintzako produktuak eta materialak fabrikatzeko erabiltzen diren produkzio-prozesuak identifikatu ditu.

2. Ehungintzako materien eta produktuen laginak ezagutzen ditu, eta ezarritako saiakuntza-eta kontrol-prozedurak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehungintzako materien eta produktuen mota saiakuntza fisikoen eta kimikoen bidez identifikatu du.
- b) Ehungintzako materien eta produktuen egitura- eta portaera-ezaugarriak aztertu ditu.
- c) Lagin batean ehungintzako materien eta produktuen propietateak zehaztu ditu, eta unitate egokietan adierazi ditu.
- d) Onarpen- eta perdoi-marjinetan lortutako emaitzak balioetsi ditu.
- e) Ezarritako prozeduretan zehaztuta dauden identifikatu eta neurtzeko baliabideak, tresnak eta materialak erabili ditu.
- f) Parametroak segurtasunez, zehaztasunez eta metodikoki manipulatu eta neurtu ditu.

3. Jantzigintzako produktueta larruak identifikatzen ditu, eta kalitateak, motak eta jasotako tratamenduak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruak zurratzeko prozesua deskribatu du, eta sarrera eta irteerako produktuak adierazi ditu.
- b) Larruen propietateak eta ezaugarriak prozedura egokien bidez aztertu ditu.
- c) Larruen propietateak fabrikazio-prozesuekin edo haiek sorrarazi dituzten tratamenduekin lotu ditu.
- d) Larru motak bereizi ditu eta horiek fabrikatu nahi diren gaien ezaugarriekin duten lotura adierazi du.
- e) Larrurako ereduak kalitate-prozesu bat deskribatu du.
- f) Larruen kontrolari buruzko "ikusken-jarraibideak" prestatu eta aztertu ditu.
- g) Motaren eta transformazio-prozesuaren ondorioz larruek dituzten akats ohikoenak adierazi ditu.
- h) Azken produktuaren ezaugarrietan eragina duten akats eta anomalia ohikoenen ondorioak balioetsi ditu.
- i) Elementu osagarria bere eginkizunarekin lotu du.
- j) Elementu osagarriak modelora egokitzen direla ikusi du.

4. Materien eta produktuen tratamenduak, aprestuak eta akaberak hautatzen ditu, eta aldatzen diren propietateak edo ezaugarriak eta lortzen diren kalitateak ezagutzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aprestuen eta akaberen prozedurak zehaztu ditu, eta erabilitako materialak, eta horiek ehungintzako materiei eta produktuei ematen dizkieten ezaugarriak adierazten ditu.
- b) Lortu nahi diren ezaugarriak dagokienez, ehungintzako materiak izan behar dituzten aprestuak eta akaberak hautatzeko aplikatu behar diren irizpideak zehaztu ditu.

- c) Ehungintzako materietan eta produktuetan, aplikatu zaizkien tratamenduak eta haiek lortzeko ezaugarriak ondorioztatu ditu.
- d) Ehungintzako produktu baten akabera-prozesuek ematen dituzten propietateak eta prestazioak zerrendatu ditu.
- e) Laginen gainean prozesuaren aurrekoa eta ondorengoa bereizi ditu.

5. Ehun teknikoak eta berariazko beste materia batzuk identifikatu, eta horien ezaugarriak eta aplikazioak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehun teknikoak erabiltzen diren arlo nagusiak (automozioa, geozuntzak, nekazaritza, eraikuntza eta babes pertsonala, besteak beste) identifikatu ditu.
- b) Horien erabilerak eta aplikazioak ezagutu ditu.
- c) Jantzigintzaren sektorean ehun teknikoek duten garrantzia balioetsi du.
- d) Jantzi adimendun deitutakoen funtzioak zehaztu ditu.
- e) Ehungintzako eta larrugintzako produktuetan dauden joera berriak identifikatu ditu.

6. Ehungintzako eta larrugintzako materialak kontserbatu eta biltegitratzeko baldintzak zehazten ditu, eta horiek osagaien eta produktuen ezaugarriengan duten eragina aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehungintzako materien eta produktuen, eta larruen mota kontserbatu eta biltegitratzeko ingurune-baldintzekin lotu ditu.
- b) Materien, produktuen eta larruen motak horien bilgarrian edo merkataritza-aurrezpenean identifikatu ditu.
- c) Ehungintzako materialak eta produktuak mantentzeko, biltegiak bete behar dituen kontserbazio-baldintzak (tenperatura, argia, hezetasuna, aireztapena) ondorioztatu ditu.
- d) Ehungintzako materia eta produktuetarako bilgarrien eta merkataritza-aurrezpenen motak adierazi ditu haiek garraiatu eta biltegitratzeko.
- e) Ehungintzako materien eta produktuen kontserbazio-sinbologia eta erabilerargibideak erabili ditu.
- f) Etiketatze-sinbologia normalizatutik abiatuta, materia mota, ehungintzako produktuak eta larruak identifikatu ditu.
- g) Ehungintzako materialak eta produktuak, eta larruak biltegitratzeko erabiltzen diren baliabideen, eta garraio- eta manipulazio-sistemen ezaugarri funtzionalak eta segurtasun-baldintza operatiboak deskribatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak

1. MATERIALAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	- Ehungintzako materien eta produktuen akatsak identifikatzea. - Ehungintzako materialak eta produktuak saiakuntza fisikoen eta kimikoen bidez identifikatu eta balioestea. - Ehungintzako materien eta produktuen aplikazioak ezagutzea.

kontzeptuzkoak	- Ehungintzako materien sailkapena, eta ezaugarri eta propietate fisikoak eta kimikoak. Araudia eta sinbologia. - Ehungintzako materiak lortzeko prozesuen eskema. - Ehungintzako materien (zuntzak, hariak, ehunak, ehundu gabeko oihalak, estaldurak) oinarritzko egiturak eta ezaugarriak. - Ehungintzako materien eta produktuen aplikazioak.
jarrerazkoak	- Materialen aplikazio berriak bilatzeko ekimena. - Aplikazio eta egoera berrien aurrean material jakin baten erreakzioak, portaerak eta osaera ezagutzeko jakin-mina. - Erabilitako materialen ezaugarriak ezagututa eta haiek eman ditzaketen propietateak zein diren jakinda, azken produktuaren emaitza hobetzeko interesa. - Ehungintzako materien sailkapenak ezartzeko, fabrikazio-prozesuak ondorioztatzen eta haien erabilgarritasuna hautatzeko autonomia. - Zehaztasuna fitxa teknikoak erabiltzean, eta arauak eta sinbologia aplikatzean.

2. MATERIEK ETA PRODUKTUEN LAGINAK AZTERTZEA

prozedurazkoak	- Azterketa kualitatiboen eta kuantitatiboen bidez ehungintzako materien eta produktuen parametroak neurtzea. - Neurgailuak erabiltzea. - Saiakuntzak egitea.
kontzeptuzkoak	- Hautatzeko, instalatzeko, doitzeko, kalibratzeko eta irakurtzeko irizpideak. - Laginketa-teknikak. - Ehungintzako materiak eta produktuak aztertzeko aplikatzen diren arauak. - Materiak identifikatzeko saiakuntzak: zuntzak, hariak, ehunak, estaldurak eta larrua. - Propietateak egiaztatzen saiakuntzak: erresistentzia, dimentsio-egonkortasuna, elastikotasuna. - Parametroak egiaztatzen saiakuntza: izena, lodiera, luzera, bihurtura, kolorea, sendotasuna, ukia eta erorkera, besteak beste. - Neurtzeko eta saiakuntzak egiteko tresneria: kalibratzea eta mantentzea. - Saiakuntzei buruzko araudia. - Laginak ateratzeko, probetak egiteko eta saiakuntzak egiteko prozedura. - Emaitzak aztertu, ebaluatu eta tratatzeko prozedurak. - Arrisku pertsonalen, materialen eta ingurumeneko prebentzioa. - Ordena- eta garbitasun-prozedurak.
jarrerazkoak	- Zehaztasuna, ordena eta metodoa azterketa- eta saiakuntza-prozedurak egitean, eta materialak sailkatzean. - Zuhertasuna eta doitasuna parametroak neurtzean, eta aparatuak eta tresneria erabiltzean. - Norberaren eta tresneriaren segurtasunerako arauak eta gomendioak zorrotz betetzea. - Proba, azterketa edo saiakuntza bat egitean egokiena den metodoa edo prozedura zehaztearen erabakiak hartzeko autonomia. - Material jakin baten saiakuntzetan, azterketetan edo probetan lortutako emaitzei buruzko iritzia emateko zehaztasuna.

3. LARRU MOTAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	- Larru zurratuen ezaugarri nagusiak identifikatzea: poroak, gainazalaren ukia, lodiera, gainazala. - Larruen aplikazioak ezagutzea. - Ikuskapen-prozesuak gauzatzea. Akatsak eta ondorioak. - Zehaztapenen eta perdoien aplikazioa.
kontzeptuzkoak	- Larruen mota eta ezaugarriak: egitura eta zatiak. - Zurraketa-prozesuaren aurreko tratamenduak: kontserbazioa eta erribera. Tratamenduan eragina duten ezaugarriak eta parametroak. - Zurraketa-prozesua: begetala, kromoa, substantzia sintetikoak. - Tindaketa eta koipeztatzea: tindaketa-metodoak, parametroak, koipeztatzea, lehortzea eta akaberak (motak, ezaugarriak eta parametroak). - Larru zurratuen ezaugarri nagusiak: poroak, gainazalaren ukia, lodiera, gainazala. - Larruen aplikazioak. - Larruen neurketak egitea. - Larruei buruzko kalitate-arauak. - Zehaztapenak eta perdoiak.
jarrerazkoak	- Aplikazio eta egoera berrien aurrean larru mota jakin baten erreakzioak, portaerak eta ezaugarriak ezagutzeko jakin-mina. - Larruek izaten dituzten akatsak ezagutu eta balioestea. - Erabilitako larruen ezaugarriak ezagututa eta haiek eman ditzaketen propietateak zein diren jakinda, azken produktuaren emaitza hobetzeko interesa. - Norberaren erabakiak hartzeko ekimena, metodo edo prozedura egokiena zehazteko.

4. TRATAMENDUAK, APRESTUAK ETA AKABERAK HAUTATZEA, ETA MATERIAK ETA PRODUKTUAK BILTEGIRATZEKO BALDINTZAK	
prozedurazkoak	- Akaberak identifikatzeko metodoak erabiltzea. - Ehungintzako materie i eta produktuei emandako ezaugarriak eta propietateak ezagutzea. - Akats ohikoenak egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	- Ehungintzako materiak hobetzea: funtzioa eta ezaugarriak. - Tratamenduen sailkapena: mekanikoak, kimikoak eta termikoak. - Akaberak identifikatzeko metodoak. - Ehungintzako materie i eta produktuei emandako ezaugarriak eta propietateak. - Akats ohikoenak.
jarrerazkoak	- Aplikazio eta egoera berrien aurrean material jakin baten erreakzioak, portaerak eta ezaugarriak ezagutzeko jakin-mina. - Ehungintzako materie i emandako ezaugarriak ezagututa eta balioetsita, azken produktuaren emaitza hobetzeko interesa. - Norberaren erabakiak hartzeko ekimena, metodo edo prozedura egokiena zehazteko.

5. EHUN TEKNIKOAK IDENTIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Jantzigintzako eta oinetakogintzako produktu adimendunak ezagutzea.
kontzeptuzkoak	- Ehun tekniken materialen ezaugarriak. - Aplikazio-sektoreak. - Akaberen berrikuntza. - Jantzigintzako eta oinetakogintza produktu adimendunak.
jarrerazkoak	- Informatuta egotearen beharra balioestea.

6. EHUNGINTZAKO MATERIAK ETA PRODUKTUAK, ETA LARRUAK KONTSERBATU ETA BILTEGIRATZEKO BALDINTZAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	- Manipulazio-irizpideak aplikatzea: sinbologia. - Materien, produktuen eta larruen merkataritza-aurkezpena egitea. - Ehungintzako materialak eta produktuak, eta larruak etiketatzeari buruzko araudia aplikatzea. - Laneko arriskuen prebentzioari buruzko neurriak egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	- Materien, produktuen eta larruaren kontserbazioa eta bizitza baliagarria. - Bizitza baliagarria laburtzen edo asaldatzen duten agenteak. - Iraunkortasun- eta kontserbazio-baldintza egokiak. - Manipulazio-irizpideak: sinbologia. - Biltegiratzeko irizpideak. - Materien, produktuen eta larruen merkataritza-aurkezpena. - Ehungintzako materialak eta produktuak, eta larruak etiketatzeari buruzko araudia.
jarrerazkoak	- Manipulazio- eta biltegiratze-tekniken aurrean materialak dituzten portaera eta erreakzioak ezagutzeko jakin-mina. - Manipulazio- eta biltegiratze-baldintzen ezagutzatik eta egokitzapenetik abiatuta, eta haiek eman ditzaketen propietateak zein diren jakinda, azken produktuaren emaitza hobetzeko interesa. - Ordena- eta zehaztasun-irizpideei jarraituz, zereginak erabateko autonomiaz eta erantzukizunaz egiteko ekimena. - Zehaztasuna fitxa teknikoak erabiltzean, eta arauak eta sinbologia aplikatzean.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

Modulu honetan materialen inguruan lortzen den ezagutza oinarritzko prestakuntza da zikloko beste modulu batzuk garatzeko, eta horrek berezko garrantzia ematen dio eta eskatzen du edukien sekuentziazioa gainerakoarekin koordinatzea.

1) Sekuentziazioa

Lehenik, jantzigintzan, oinetakogintzan eta larrukigintzan erabiltzen diren materialak eta produktuak identifikatuko dira, produkzio-prozesuan duten erabilera ziurtatzeko eta baliozkotzeko, betiere kalitateko, estetikako eta erabilerako irizpide teknikoei arreta jarrita.

Materiak eta produktuak identifikatzeaz gain, hainbat ehun eta larru lortzeko prozesuak ezagutu beharko dira, akatsak hautemateko eta lotzeko aukera emango duen jakintza lortu arte, horrela azken produktuan duen eragina baloratu ahal izateko.

Beste une batzuetan, beharrezkoa izango da hainbat materia eta produktu identifikatzeko eta neurtzeko saiakuntzak egitea, eta aplikatzekoa den araudiaren arabera laginak hartzea, betiere prozedura egokiak hautatuta eta behar bezala kalibratutako neurketa-tresnak erabilia –horrela emaitzen fidagarritasuna ziurtatuko da–.

Tratamenduak, aprestuak eta akaberak jasaten dituzten materietan eta produktuetan, horien hasierako propietateak aldatuta daude. Emaitzak azken produktuari dagozkio, lortu nahi den kalitatea gaineratuta –hura aldatu gabe– edo kostuak murriztuta. Hori dela eta, komeni da hobetzeko akaberak ezagutzea eta identifikatzea, baita ematen zaizkien ezaugarriak eta propietateak eta hautemandako akatsak ere.

Atal berezia merezi dute ehun teknikoek, sofistikazio handikoak baitira. Horien etengabeko berrikuntza dela eta, komeni da horiei buruzko informazio teknikoa etengabe eguneratuta mantentzea.

Azkenik, material eta produktu horiek eduki beharreko merkataritza-aurkezpena eta etiketatze-araudia ezagutuko da. Era berean, horien manipulazioan eta kontserbazioan, azken produktuaren kalitatea ziurtatuko diguten irizpideei eta baldintza egokiei jarraituko zaie.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honi ekin aurretik, ikasleak produkzio-prozesu osoan kokatu behar dira.

Komeni da edukiak –nagusiki kontzeptuzko izaera dutenak– ulertzeko errazenetik zailenera antolatzea eta, ahal den heinean, metodo parte-hartzaileak erabiltzea.

Prozedurazko edukiak garatzean, komeni da jarduera ordenaz egitera gidatuko duen eskema ematea; horrela, ikasleek urrats bakoitzean lortu beharreko produktuak zein diren kontuan har dezaten.

Behar-beharrezko da bisitaldien, irakurketen, eztabaiden bidez eta abar informazioaren bilaketak eta ondorengo tratamenduak duen garrantzia ulertaraztea.

Era berean, beharrezkoa da eska daitekeen mailaren mugak zein diren argi eta garbi adieraztea. Horrela, definitutako ikaskuntza-emaitezkin bat datozela eta ezarritako ebaluazio-irizpideak gainditzeko ez dituztela ziurtatuko da.

Moduluan zehar lortutako emaitzen garapena eta aplikazioa beste modulu praktikoago batzuetan inplementatuko dira, produkzio-prozesuetan erabiltzen diren materialak ziurtatu eta baliozkotu ahal izateko, kalitatearekin, estetikarekin eta erabilerarekin lotutako irizpide teknikoak kontuan izanda.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Materialak identifikatzea:

- Materialak eta produktuak identifikatzea eta sailkatzea.

- Propietateak zehazten dituzten parametroak neurtzea.
 - Materialak eta produktuak hautatzeko irizpideak identifikatzea.
 - Akats ohikoenak antzematea.
 - Ehungintzako materien sinbologiari buruzko araudia ezagutzea.
 - Erabilerak eta aplikazioak deskribatzea.
 - Fabrikazioko produkzio-prozesuak identifikatzea.
- ✓ Materien eta produktuen laginak aztertzea:
- Materien eta produktuen izaera identifikatzeko saiakuntzak egitea.
 - Egituraren eta portaeraren ezaugarriak aztertzea.
 - Propietateak unitate egokietan zehaztea.
 - Lortutako emaitzak balioestea.
 - Dokumentazio teknikoa identifikatzea.
 - Parametroak segurtasunez, zehaztasunez eta metodo onez manipulatzeko eta neurtzea.
- ✓ Larru motak identifikatzea:
- Larruen izaera, ezaugarriak eta zurratzeko prozesua identifikatzea.
 - Larruen propietateak eta ezaugarriak aztertzea.
 - Propietateen eta fabrikazio-prozesuen eta tratamenduen arteko loturak ezartzea.
 - Larruak ezagutzea eta jantziekin eta gaiekin lotzea.
 - Larruak ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarraibideak prestatzea.
 - Akatsik arruntenak deskribatzea eta horien ondorioak baloratzea.
 - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
 - Funtziorako eta modelorako osagarriak diren elementuak egitea eta egokitzea.
 - Mihizatzearen kalitatea egiaztatzea.
 - Kalitate-arauen aplikazioa kontrolatzea.
- ✓ Tratamenduak, aprestuak, akaberak eta biltegitratze-baldintzak hautatzea:
- Tratamenduak identifikatzea, baita materialei eta produktuei ematen dieten ezaugarriak ere.
 - Tratamenduak aplikatzeko irizpideak zehaztea, horien ezaugarriekin lotuta.
 - Aplikatutako tratamenduak eta lortutako ezaugarriak ezagutzea.
 - Tratamenduen, aprestuen eta akaberen laginen gaineko prozesua ebaluatzea (lehen eta gero).
 - Beharrezko makinak, erremintak eta tresnak identifikatzea eta prestatzea.
 - Akaberaren kalitatea egiaztatzea.
- ✓ Ehun teknikoak identifikatzea:
- Materialen ezaugarriak eta zein sektoretan erabiltzen diren identifikatzea.
 - Erabilerak eta aplikazioak ezagutzea.
 - Akaberetako berrikuntza identifikatzea.
 - Ehun horien garrantzia baloratzea.
 - Horien funtzioak definitzea.
 - Joera berriak identifikatzea.
 - Produktu adimendunak antzematea.
- ✓ Ehungintzako materialak eta produktuak, eta larruak kontserbatu eta biltegitratzeko baldintzak zehaztea:
- Materien mota kontserbazioko eta biltegitratzeko giro-baldintzekin lotzea.
 - Produktuak enbalajearen arabera identifikatzea.
 - Kontserbazio-baldintzak ondorioztatzea.
 - Garraiatzeko eta biltegitratzeko enbalaje motak adieraztea.

- Materia mota sinbologiaren eta etiketatzeari buruzko araudiaren arabera identifikatzea.
- Amaierako kalitate-kontrola egitea.
- Bukatutako produktuak poltsaratu edo paketatzea.
- Garraiatzeko eta manipulatzeko baliabideen eta sistemen ezaugarriak eta segurtasun-baldintzak egiaztatzea.

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak
Kodea:	0585
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	297 ordu
Kurtsua:	1.a
Kreditu kop.:	17
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0913_3: Manikiaren gainean jantzien modeloak garatzea. UC1515_3: Neurrirako jantzietarako patroiak sortzea. UC1519_3: Ikuskizunetarako jantzien modeloak, patroiak eta ebaketa egitea.
Helburu orokorrak:	4.a / 6.a / 7.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Neurri-taulak patroi eta tailu moten arabera egiten ditu eta, horretarako, jantzi mota bakoitza ezaugarritzen duten puntu anatomikoak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jantzi bakoitzean tailua definitzen duten neurriak identifikatu ditu.
- Patroigintzan esku hartzen duten puntu anatomikoak identifikatu ditu.
- Talde bakoitzaren (umetxoan, haurren, nerabeen, gazteen eta helduen) ezaugarri fisiko nagusiak zehaztu ditu.
- Hustuketak eta lasaierak materialaren eta jantzi motaren arabera kalkulatu ditu.
- Tailu-taulak gorputz-konfigurazioen edo tailu normalizatuen arabera prestatu ditu.

2. Oinarri-patroiak lantzen ditu, neurriak zuzenean hartu ostean edo tailu normalizatuak egokitu ondoren, betiere marrazketako eskuko erremintak edo tresna informatikoak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Neurriak, teknikak, materialak eta akaberak identifikatu ditu.
- Patroigintzako neurri-tailua trazatu beharreko patroiarekin lotu du.
- Lasaierak eta hustuketak materialaren eta jantzi motaren arabera aurreikusi ditu.
- Oinarri-patroien lineak marraztu edo aldatu ditu, trazadura-arauei jarraituta.
- Oinarri-patroiak eta ezarritako neurriak bat datozela egiaztatu du, doikuntza-puntuaren egoera egiaztatuta.
- Piezak lotzeko prozesuan beharrezkoak diren seinaleak markatu ditu.
- Patroiak markatutako profilei eta seinaleei jarraituz ebaki ditu.
- Patroiei buruzko zehaztapenak dokumentazio teknikoan jaso ditu.

3. Modelatzeko behin betiko patroiak lortzen ditu, eta, horretarako, patroiak transformatzeko eta eskuz mihiztatzeko teknikak aplikatzen ditu eta diseinuaren zehaztapen teknikoak eta artistikoak egiaztatzen ditu, manikiaren edo euskarri birtualaren gainean.

Ebaluazio-irizpideak:

- Modeloak eskatzen duen transformazio mota identifikatu du.
- Oinarri-patroia eta transformaziorako teknika egokiena hautatu ditu.
- Patroi transformatua, egiaztatua eta behar bezala identifikatua lortu du.
- Piezak lotzeko prozesuan beharrezkoak diren seinaleak markatu ditu.
- Modeloaren behin betiko ehunaren antzeko ezaugarriak eta portaera dituen ehun batean ebaki eta mihiztatu du *toilea*.
- Manikira egokitutako eta probatutako *toilean* egindako zuzenketak definitu ditu, modeloaren ezaugarrien arabera.
- Probaren zuzenketak patroira eraman ditu.
- Zuzendutako, egiaztatutako eta identifikatutako patroi guztiak lortu eta artxibatu ditu.

4. Modeloak egiteko behin betiko patroiak lortzen ditu, eta, horretarako, manikien edo euskarri birtualen gainean aplikatzen ditu modelatzeko teknikak eta *toilea* erreferentziazko linea anatomikoetara egokitzen du, diseinuaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Pertsonaren neurriak eta konfigurazioa identifikatu ditu.
- Euskarria edo manikia (estatikoa edo dinamikoa) hautatu du.
- Aplikatutako diren modelatze-teknikak eta -prozedurak zuzen hautatu ditu.
- Manikiaren gainean *toilea* modelatzeko beharrezko formak eta bolumenak lortu ditu.
- Erreferentziazko puntuak eta osagarrien kokalekua seinaleztatu ditu *toilean*.
- Manikia ordenan biluztu du, seinaleztatutako erreferentziak aldatu gabe.
- Patroi lauak desmuntatutako piezen bitartez erreproduzitu ditu.
- Patroi egiaztatutako eta identifikatutako lortu ditu.

5. Bildumak aurkezteko jantzien katalogoak tresna informatikoen bidez edo eskuko tresnen bidez lantzen ditu, modeloen artxiboak landutako aldagaiekin kudeatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Bildumaren ezaugarri bereizgarriak identifikatu ditu.
- Modelo berriak lortzeko patroiak hautatu ditu.
- Modelo berriak lortzeko, patroiarri beharrezko aldaketak aplikatu dizkio.
- Bildumaren patroiak lortu ditu.
- Modelo berriei buruzko informazioa dokumentatu eta artxibatu du.

c) Oinarrizko edukiak

1. NEURRIEN TAULAK EGITEA

prozedurazkoak	- Giza gorputzaren neurriak hartzea: erreferentzia-puntu anatomikoak (estatikoak eta dinamikoak) identifikatzea. Erabiltzen diren neurri nagusiak. - Tailua identifikatzea, jantziaren arabera. - Tailuaren nomenklatura eta irudikapena ezagutzea.
kontzeptuzkoak	- Nomenklatura anatomikoa. - Zinta metrikoa eta antropometroa. - Luzerako eta perimetroko neurketak. Neurketa ondorioztatuak eta etengabeak. - Tailu multzoen definizioa. Neurrien taulak biztanleria-segmentuaren arabera. Proportzioak. - Tailuen sistema normalizatuak. UNE, ISO arauak. - Tailu normalizatuak. Jantzi baten tailua.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna neurketetan. - Zorroztasuna taulak maneiatzean.

2. OINARRI PATROIAK EGITEA

prozedurazkoak	- Patroien fitxa teknikoak egitea. - Oinarri-patroia lortzeko prozesuak. - Modeloak eta diseinuak interpretatzea. - Tresneria, lanabesak eta erremintak antzeman eta maneiatzea. Materialak. Marraztu, neurtu, trazatu, ebaki eta seinaleztatzeko tresnak. - Trazadurak egitea. - Patroiak identifikatzea (seinaleak, sinboloak, lotura- eta kokapen-markak eta osagai-izena, besteak beste). - Neurriak egiaztatzea eta bat etortzea. - Hainbat materialetako patroiak eskuz ebakitzea. - Patroiak zuzentzea. - Hainbat materialetako patroiak sistema informatiko bidez marraztea eta ebakitzea.
kontzeptuzkoak	- Patroiak. Motak. Terminologia. Patroi nagusiak eta bigarren mailakoak. - Patroi bat egitean eragina duten faktoreak: - Modeloaren diseinua. - Exijentzia estetikoak, funtzionalak eta erosotasunekoak.

	• Materialen ezaugarriak. • Integrazioko beste kanpo-faktore batzuk. - Patroien irudikapen grafikorako teknikak. Eskuzkoak eta informatizatuak. - Trazatzeko arauak.
jarrerazkoak	- Zorroztasunez aplikatzea prozedurak. - Zorroztasunez egitea oinarri-patroiak. - Trazadura-arauak betetzea. - Arretaz kontserbatzea eta erabiltzea tresneria eta erremintak.

3. BEHIN BETIKO PATROIAK LORTZEA, PATROIEN TRANSFORMAZIO BIDEZ, ETA ESKUZ MIHIZTATZEA

prozedurazkoak	- Formak eta bolumenak transformazioen arabera lortzea. - Transformatu beharreko artikularen edo modeloaren oinarri-patroia hautatzea. - Doikuntzak, lasaierak eta plomatzeak aplikatzea. - Ehunak prestatzea. - Modeloaren patroiak ezagutzea. - Optimizazioa eta errendimendua zaintzea materialen ebaketan. - Osagaiak markatzea eta ebakitzea. - Teknikak aplikatzea. Ebaketarako eragiketak, tresneria, lanabesak eta materialak sekuentziatzea. - Prototipoak egitea. - <i>Toileak</i> lantzean akatsak ezagutzea. - Modeloaren doikuntza egiaztatzea. Modeloak doitzea: patroiak, materialak, neurketak, analisi estetiko-anatomikoa, funtzionala, erabilerarekiko eta erosotasunarekiko egokitzapena. - Probetan desbideratzeak eta akatsak identifikatzea. Doikuntzak eta egokitzapenak zehaztea. Neurri zuzentzaileak ezartzea. - Anomaliak erregistratzea. Datuak biltzea. Zuzentzea, egiaztatzea eta hobekuntza-proposamenak egitea. - Prototipoa baliozkotzea (modeloaren patroia).
kontzeptuzkoak	- Formak eta bolumenak lortzeko prozesuak. - Elementu geometrikoak: gainazaleko lerroak, bolumenak, angeluak, simetriak, eraispenak, biraketak, translazioak. - Leunketak. Pleguak. Tolesak. Formak. - Gurutzaketak. Lepoak. Eskoteak. Hozkak: simetrikoak, asimetrikoak, sinpleak, bikoitzak. - Plomatzeak. Sastadak eta zuloak. - Transformatu beharreko kokapen-sistema (biratzeak). - Lortu beharreko osagai kopurua. - Patroiak manipulatzeak teknikak. - Formak edo bolumenak lortzeko teknikak. - Asimetriak. - Ehunak hautatzeko irizpideak. - Modeloaren analisi teknikoak. - Patroiak zuzentzeko teknikak. - Patroia egiaztatzeak eta fintzeko teknikak. - Bideragarritasun teknikoak. Egingarritasuna.
jarrerazkoak	- Zorroztasunez aplikatzea prozedurak. - Doitasunez eta autonomiaz gauzatzea prozesua. - Erroreak bilatzeko eta zuzentzeko interesa izatea.

4. BEHIN BETIKO PATROIAK MODELATZE BIDEZ LORTZEA

prozedurazkoak	- Piezak txertatzea eta doitzea. - Drapeatzeak, zimurak, pleguak, tolesak, alozak, izurrak eta konformatuak. - Doikuntzak, lasaierak eta plomatzeak aplikatzea. Erreferentziazko puntuak seinaleztatzea. - Apaindurak eta osagarriak jartzea. - Patroiaren modelorako doikuntza egiaztatzea. - <i>Toilea</i> baliozkotzea eta zatikatzea. - <i>Toilea</i> paperean, kartoian edo euskarri informatikoan erreproduzitzea. - Simulatzea. Berariazko informatika-programak.
kontzeptuzkoak	- Euskarriak eta manikiak. - Modelatzeko teknikak eta prozedurak. - Behin betiko ehunaren antzeko ezaugarriak dituzten ehunak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak. - Azterketa estetiko-anatomikoa. Azterketa funtzionala: erabilerarako eta erosotasunerako egokitzapena.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna doikuntzan. - Doitasuna eta autonomia prozesuan. - Behatu eta aztertze jarrera.

5. JANTZIEN KATALOGOA EGITEA

prozedurazkoak	- Irudi lauetan jantzien bolumena irudikatzea eta zatikatzea. - Materialak diseinuaren arabera hautatzea. - Oinarri-patroiak hautatzea. - Bildumak prestatzea. - Bildumari buruzko dokumentazio teknikoak prestatzea. - Oinarri-patroien eta modeloen artxiboa egitea.
kontzeptuzkoak	- Bildumen analisia eta ezaugarritzea. - Bilduman parte hartzen duten faktore teknikoak: bideragarritasuna eta produkzioa. - Modaren ezaugarri estetikoak eta joerak. Gizarte- eta erabilera-funtzioa. Informatika-programak. - Patroiak gauzatzean eragina duten faktoreak. Azterketa: anatomia, ehun-materialak, ehunekoak ez direnak, diseinua eta funtzionaltasuna. - Jantziaren osagaien ezaugarriak. - Aldaerak egiteko patroiak transformatzeko teknikak. - Artxiboak eta katalogoak egiteko irizpideak.
jarrerazkoak	- Ekimena izatea ideiak gaineratzean. - Informatuta eta eguneratuta egotearen beharra balioestea. - Zorroztasunez eta ordenaz artxibatzea patroiak eta modeloak.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek neurrirako ehun- edo larru-gaiak diseinatzeko eta garatzeko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza eskaintzen du, eta, zeregin horretan, berrikuntza teknologikoko baliabideak erabiltzen ditu.

Irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluak patroigintzan erabiltzen diren oinarritzko teknikak barnean hartzen dituen gero, komeni da prozesu horien sekuentzia logikoari eta koherenteari jarraitzea.

Lehenik, honako alderdi hauek definitu beharko dira:

- Neurriak, normalizatuak nahiz giza gorputza neurtzetik lortutakoak.
- Patroiaren sorreran parte hartzen duten puntu anatomikoak.
- Jantzi bakoitzaren tailua identifikatzen duten hustuketak, lasaierak eta neurriak.

Neurrien taulak abiapuntu izanik, oinarri-patroiak lantzeari eta egiaztatzeari ekingo zaio, bai tresna konbentzionalen bidez, bai berariazko informatika-programak erabilita. Behar bezala identifikatuta egongo diren patroi horiek irizpide estetikoetara, funtzionaletara eta erosotasunekoetara egokitu beharko dira.

Ondoren, patroiak transformatzeari ekingo zaio, egin beharreko gai edo jantzi motaren arabera, eta modeloa definituko duten lasaierak, formak eta bolumenak zehaztuko dira diseinuaren analisiaren bidez. Patroiak behar bezala egiaztatu eta identifikatu beharko dira, prototipoa baliozkotzeko.

Aurreko prozedura ebatzi ostean, eta behin betiko patroiak lortuko badira, beharrezko doikuntzak aplikatuko dira eta apaindurak, osagarriak eta xehetasunak gaineratuko dira.

Azkenik, dokumentazio teknikoa egiteko patroiak eta materialak hautatuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, gauzak egiteko moduetara bideratu beharko litzateke, eta, ondorioz, hezkuntza-prozesua prozedura batzuen inguruan antolatu beharko litzateke. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte ikasleek lortu beharreko abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Unitate didaktiko bakoitzari ekitean, komeni da kasu praktiko edo egoera zehatz erraz batzuk oinarritzat hartzea eta eztabaida txiki bat pizten saiatzea. Hala, ikasleen jakin-mina eta motibazioa pizteaz gain, gaiaren inguruan aurretik dituzten ezagutzak finkatu ahal izango dira, eta edukiak egokitu ahal izango dira.

Edukiak ulermen-zailtasun txikienezkotik handienekora antolatuta transmitituko dira; ahal den neurrian, ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabilita. Horrek arrazoitze-prozesuak eta erabaki logikoak, eskuratutako prozeduren arabera justifikatuak ekarriko ditu berekin.

Modulu hau batik bat prozedurazkoa da. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila lortzeko, beharrezkoa da jarduerak hainbat jantzi eta gairekin errepikatzea, hainbat materialekin, modeloetan eta tekniketan eboluzionatzea, eta zailtasun-maila arian-arian areagotzea.

Moduluari amaiera ematean, lan osoak egitea sustatu beharko da, eta prozesu osoa simulatu beharko da. Horretarako, dagokion mailan, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna abian jarriko da, eta moduluan zehar eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak hautatu eta aplikatuko dira. Jarduera horiei esker, lortutako datuetatik abiatuta, jarduera bakoitza praktikan egiteko garaian ikaslearen autonomia ebaluatu ahal izango da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Neurrien taula egitea:
 - Neurriak hartzea.
 - Puntu anatomikoak identifikatzea.
 - Tailu multzoak definitzea, populazio-segmentuaren arabera.
 - Tailu normalizatuak finkatzea eta aurkeztea.
- ✓ Oinarri-patroiak egitea:
 - Patroien fitxa teknikoak egitea.
 - Modeloak eta diseinuak interpretatzea.
 - Oinarri-patroia lortzeko prozesua finkatzea.
 - Tresneria, lanabesak eta erremintak antzeman eta maneiatzea.
 - Patroiak identifikatzea.
 - Neurriak egiaztatzea eta bat etortzea.
 - Patroiak zuzentzea.
 - Patroien irudikapen grafikoa egitea, eskuz edo informatizatuta.
- ✓ Behin betiko patroiak lortzea, patroien transformazio bidez, eta eskuz mihiztatzea:
 - Transformatu beharreko artikularen edo modeloaren oinarri-patroia hautatzea.
 - Formak eta bolumenak lortzea.
 - Doikuntzak, lasaierak eta plomatzeak aplikatzea.
 - Patroiak zuzentzea.
 - Patroia egiaztatzea eta fintzea.
 - Ebaketa optimizatzea eta errendimendua areagotzea.
 - Osagaiak markatzea eta ebakitzea.
 - Prototipoak egitea.
 - Modeloaren doikuntza egiaztatzea.
 - Doikuntzak egokitzea.
 - Proban desbideratzeak eta akatsak identifikatzea.
 - Anomaliak erregistratzea eta datuak biltzea.
 - Prototipoa baliozkotzea.
- ✓ Behin betiko patroiak modelatze bidez lortzea:
 - Modelatzeko teknikak eta prozedurak aplikatzea.
 - Formak eta bolumenak lortzea.
 - Erreferentziatzeko puntuak seinalizatzea eta osagaiak kokatzea.
 - Patroiaren modelorako doikuntza egiaztatzea.
 - *Toilea* zatikatzea.
 - *Toilea* euskarri fisikoan edo informatikoan erreproduzitzea.
 - *Toilea* baliozkotzea.
- ✓ Jantzi-katalogoak egitea:
 - Bildumak aztertzea eta ezaugarritzea.
 - Materialak diseinuaren arabera hautatzea.
 - Modaren ezaugarri estetikoak eta joerak finkatzea. Gizarte- eta erabilera-funtzioa.
 - Oinarri patroiak hautatzea eta aldaerak egiteko patroiak transformatzea.

- Dokumentazio teknikoa lantzea.
- Oinarri-patroien eta modeloen artxiboa egitea.

3. lanbide-modulua

JANTZIAK NEURRIRA EGITEKO BALIABIDEAK KUDEATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea
Kodea:	0586
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	80 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1514_3: Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea. UC1237_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.
Helburu orokorrak:	1.a / 8.a / 13.a / 14.a / 20.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Neurrirako edo ikuskizunetarako jantziak egiteko materialen eta tresnerien beharrak zehazten ditu, eta, horretarako, horien motak identifikatzen ditu eta materialen kopuruak eta beharrezko tresnen ezaugarriak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Materialen tipologia, erabilerak eta ezaugarriak identifikatu ditu.
- Diseinuaren zehaztapen teknikoan arabera eta bezeroen hautespenaren arabera beharrezkoak diren materialak zehaztu ditu.
- Proiektua gauzatzeko kopuru egokiak zehaztu ditu.
- Proiektua egiteko esku hartzen duten makineria eta instalazioak identifikatu ditu.
- Proiektua egiteko lanabesen, erreminten eta tresneria osagarrien kopuru egokiak zehaztu ditu.

2. Neurrirako jantzigintzako proiektuak garatzeko baliabide materialen eta informazioaren hornikuntza eta biltegiatzea definitzen du, logistikako oinarrizko teknikak aplikatuta, erreminta konbentzionalen eta informatikoen bidez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hornikuntza-bideak identifikatu ditu.
- b) Biltegia banatzeko zentzuzko proposamena egin du.
- c) Ehungintzako, larrugintzako eta oinetakogintzako biltegiatze-teknikak aplikatu ditu.
- d) Biltegiaren barne-kudeaketako dokumentuak bete ditu.
- e) Biltegiaren inbentarioa egin du.
- f) Jantzien azken banaketaren bideak identifikatu ditu.
- g) Bezeroei eta hornitzaileei buruzko fitxategia eguneratu eta antolatu du.

3. Neurrirako eta ikuskizunetarako proiektuak egiteko beharrezko ekintzak programatzen ditu, kalitatea kudeatzeko ekintzak barne, eta proiektu horien garapenean esku hartu behar duten materialak, tresneria eta profesionalak identifikatzen eta kuantifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintzako proiektuaren garapenean esku hartzen duten prozesuak eta prozedurak deskribatu ditu.
- b) Materialen beharrezko kantitateak zehaztu ditu.
- c) Osagarrien eta eranskinen beharrezko kantitateak zehaztu ditu.
- d) Jantzigintzarako beharrezko tresneria eta lanabesak identifikatu ditu.
- e) Kalitateko eta etengabeko hobekuntzako ekintzak identifikatu ditu.
- f) Proiektua egiteko denborak kalkulatu ditu.
- g) Proiektua ezarritako epean garatzeko beharrezko profesionalak identifikatu ditu.
- h) Prestatutako produktuak eta gaiak formalizatu eta entregatzearekin lotutako dokumentazioa bete du.

4. Neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintzako proiektuetako aurrekontuak egiten ditu, merkatuko prezioak aplikatuta eta giza baliabideak, baliabide materialak eta epeak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materialen eta osagarrien merkatuko prezioak lortu ditu.
- b) Neurrirako jantzigintzako lantegi bateko zuzeneko eta zeharkako kostuak kalkulatu ditu.
- c) Jantzi bakoitzaren kostu-dokumentua landu du.
- d) Proiektuaren kanpo-finantzaketaren kostuak aurreikusi ditu.
- e) Behin betiko aurrekontua osatzen duten kontu-sailak zehaztu ditu.
- f) Aurrekontuak egiteko eskuko tresnak eta tresna informatikoak erabili ditu.
- g) Aurrekonturako negoziazioak aplikatzeko moduak antzeman ditu.
- h) Merkatu-azterketa egin ondoren, lortutako prezioak alderatu ditu.

5. Neurrirako edo ikuskizunetarako jantzigintzako proiektua definitzen du, bezeroari aholkuak eta arreta emateko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Komunikazio-teknikak aztertu ditu.
- Zehaztutako ekintza-planaren arabera, bezeroen arreta osatzen duten faseak deskribatu ditu.
- Bezeroen tipologia, motibazioak eta beharrak identifikatu ditu.
- Aholkulariek produktuaren ezaugarriak jakitearen garrantzia deskribatu du.
- Aholkularitzan jarraitu beharreko jardunbideak zehaztu ditu, enpresak finkatutako ekintza-planaren arabera.
- Erosteko prozesua errazten duten elementu gisa balioetsi ditu informazioa, aholkularitza, giro abegitsua, gizalegea, komunikazioa eta saltzaile aholkulariaren gizarte-trebetasunak.
- Bezeroekin adostutako neurrirako edo ikuskizunetarako jantzigintzako proiektuaren ezaugarriak erregistratu ditu.
- Leialtze-plana aplikatzeko bezeroen fitxategia eguneratuta izatearen garrantzia zehaztu du.

6. Bezero izan daitezkeen errekamazio, kexa edo iradokizunei erantzuten die, jarduteko irizpideak eta prozedurak ezagutu eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Errekamazio eta kexen aurrean azaldu beharreko jarrera, portaera eta interesa tipifikatu ditu, eta bezeroei informazioa ematean estilo asertiboa erabili du.
- Gatazkak eta errekamazioak ebazteko erabiltzen diren teknikak garatu ditu.
- Indarrean dagoen legeriak nabarmentzen dituen errekamazioen alderdiak aintzat hartu ditu.
- Errekamazioak aurkezteko prozedura deskribatu du.
- Erraz konpon daitezkeen errekamazioen aurrean bezeroei eskain dakizkiekeen prozedurarako hautabideak identifikatu ditu.
- Errekamazioari buruzko informazioa aurrez ezarritako hierarkia-ordenaren arabera helarazi du.
- Informazioa antolatzen duten eskuko informazio-sistemek eta informazio-sistema informatikoek zerbitzuaren kalitate-kontrolerako duten garrantzia baloratu du.
- Bezeroen salmenta ondoko jarraipenaren, gertakizunen, eskaeren eta errekamazioen inguruan erregistratu beharreko informazioa ezarri du, betiere egindako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen leialtasuna areagotzeko adierazle gisa.

c) Oinarrizko edukiak

1. JANTZIA EGITEKO MATERIALEN ETA TRESNERIAREN BEHARRAK ZEHATZEA	
prozedurazkoak	- Materialak hautatzea. Jantzi motak: arrazoiak, kolorea eta etiketak. - Materialen, oihalen, osagarrien eta apainduren laginak lantzea. - Ehunak ehunduraren, eroriaren eta bolumenen arabera sailkatzea. - Materialak biltegian antolatzea. - Baliabideak optimizatzea.
kontzeptuzkoak	- Ehunak: ezaugarriak, propietateak eta portaera. - Larruak: ezaugarriak, propietateak eta portaera.

	- Hariak eta apaindurak: josteko harien ezaugarriak eta osagarriak. - Giza beharrak eta tresneriaren beharrak.
jarrerazkoak	- Zorroztasunez aplikatzea arauak eta sinbologiak. - Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena izatea. - Aplikazio eta egoera berrien aurrean material jakin baten erreakzioak, portaerak eta osaera ezagutzeko jakin-mina izatea.

2. BALIABIDE MATERIALEN HORNIKUNTZA ETA BILTEGIRATZEA DEFINITZEA	
prozedurazkoak	- Materialak identifikatu eta kontrolatzea. Harrera-fitxak. - Materialak katalogatzea, kokatzea eta jartzea. Kontserbazioa. - Inbentarioen kontrolak egitea. Erregistro-liburua egitea: materialen sarrera eta irteera. - Kostu logistikoak eta stockak kudeatzea. - Bezeroen eta hornitzaileen fitxategiak lantzea. Egitura finkatzea eta eguneratzea.
kontzeptuzkoak	- Biltegiratze-zona. Ezaugarriak. - Garraioak eta joan-etorriak. Barnekoak eta kanpokoak. - Inbentarioen kontrola. Erregistro-liburua: materialen sarrera eta irteera. - Kostu logistikoak. Stockak. - Bezeroen eta hornitzaileen fitxategiak. Egitura eta eguneratzea.
jarrerazkoak	- Zuhurtasunez biltzea datuak. - Ordena- eta zehaztasun-irizpideei jarraituz, zereginak erabateko autonomiaz eta erantzukizunaz egiteko ekimena izatea. - Hobekuntzak bilatzeko interesa izatea. - Biltegi-kudeaketa zuzenaren bidez informazio zehatza eta egiazkoa lortzearen garrantzia balioestea.

3. NEURRIRAKO ETA IKUSKIZUNETARAKO JANTZIGINTZA PROIEKTUAK EGITEKO BEHARREZKO EKINTZAK PROGRAMATZEA	
prozedurazkoak	- Baliabideak hornitzea. Lana antolatzea. Baliabideak optimizatzea. - Beharrezko teknikak eta profesionalak kalkulatzeko. - Materialak kalkulatzeko. Laginak prestatzea. - Makinak kalkulatzeko, egin beharreko eragiketa kopuruaren eta motaren arabera. - Beharrezko profesionalak kalkulatzeko. - Eragiketa bakoitzerako eta prozesu osorako aurreikusitako denbora kalkulatzeko. - Dokumentuak lantzea eta interpretatzea. - Proiektuen artxiboak egitea.
kontzeptuzkoak	- Behar teknikoak eta giza beharrak. - Materialak eskuratzeko datak. - Aplikatzeko moduak. Proben datak eta emateko epea. - Kalitatearen kudeaketa.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, doitasuna eta autonomia zaintzea jarduerak gauzatzean. - Kalitatearen kudeaketarekiko eta hobekuntza-jardunekiko

	konpromisoa hartzea. - Lana prestatu eta egitean denbora zentzuz aprobetxatzea.
--	--

4. NEURRIRAKO ETA IKUSKIZUNETARAKO JANTZIGINTZAKO AURREKONTUAK EGITEA

prozedurazkoak	- Erabilitako materialen prezioak kostuetan aplikatzea. - Aurrekontuak egiteko oinarrizko dokumentazioa prestatzea. - Ehunezko jantzien eta gaien kostu-dokumentuak egitea. Lehengaien eta gai osagarrien kostuak, produkzio-kostuak eta egitura-kostuak kalkulatzeko. - Aurrekontuan eragina duten zuzeneko eta zeharkako gastu materialak ondorioztatzea. - Salmenta-prezioa zehaztea. - Aurrekontuak egitea. Aurrekontua negoziatzea. - Programa informatikoak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Jantzi baten kostuan esku hartzen duten kontzeptuak: produkzioaren zuzeneko eta zeharkako kostuak. Zuzeneko eta zeharkako gastuen deskribapena. - Prezioen tarifak. - Aurrekontuak egitearekin lotutako oinarrizko dokumentazioa. - Proiektuaren oinarrizko informazioa eta bideragarritasuna.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa eta doitasuna zaintzea jarduerak gauzatzean. - Informazio teknikoa kritikoki erabiltzea. - Zorroztasuna eta doitasuna zaintzea kalkuluak egitean.

5. NEURRIRAKO EDO IKUSKIZUNETARAKO JANTZIGINTZAKO PROIEKTUA DEFINITZEA

prozedurazkoak	- Proiektua formalizatzea. - Enpresako ekintza-plana lantzea. - Aurrekontuak egitea. - Agindua formalizatzea. - Proiektuaren onarpena egiaztatzea. - Eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea egiaztatzea. - Zerbitzuak egiteari lotutako oinarrizko dokumentazioa lantzea. - Bezeroak ematen dituen materialak identifikatzea eta kontrolatzea. - Bezeroen fitxategi eguneratua egitea. Informatika-tresnak erabiltzea. - Aplikatzeko moduak finkatzea. Proben datak eta emateko epea betetzea.
kontzeptuzkoak	- Aurrekontuaren proiektua eta negoziazioa. - Prezioetan aplikatzekoak diren tarifak. Aurrekontuak. - Bezeroei arreta ematearen faseak. Bezeroaren prestazioarekiko lotura. - Komunikazioa: elementuak eta motak. Komunikazio-teknikak. - Pertsonen arteko komunikazioa hobetzen duten abilezia pertsonalak eta gizartekoak. - Produktuei buruzko informazioaren eta aholkularitzaren ezaugarriak. - Arreta pertsonalizatua. Bezeroaren beharrak eta gustuak. - Bezeroen tipologia. Komunikazioaren oztopoak eta zailtasunak. - Barne- eta kanpo-marketina. - Araudia eta legeria. Tresna informatikoak.

jarrerazkoak	- Jarrera ekintzailea izatea desberdintze-produktu berriak bilatzean. - Zehaztasunez egitea kalkuluak. - Informatuta egotearen beharra balioestea.
--------------	--

6. ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA	
prozedurazkoak	- Erreklamazioaren testuingurua osatzen duten elementu formalak identifikatzea. - Erreklamazioak kudeatzea. - Jantzigintzako proiektuekin lotzen den oinarrizko dokumentazioa egitea. - Erreklamazioen, kexen edo iradokizunen eskuko erregistroa eta erregistro automatizatua egitea. - Establezimenduan erregistratu beharreko informazioa ezagutzea. - Egindako zerbitzuan hobekuntzak sartzea. - Erreklamazioak kudeatzeko informatika-tresnak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak. - Erreklamatzeko prozedurak. Legeria. - Erreklamazio batean beharrezkoak diren dokumentuak edo frogak. - Establezimenduaren kalitate-kontrolerako adierazleak. - Informazio-sistemak. - Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen babesa Espainian eta Europar Batasunean.
jarrerazkoak	- Kalitatearekiko eta hobekuntza-jardunekiko konpromisoa hartzea. - Jarrera kritikoa izatea informazioa aztertzean. - Une oro egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek neurrirako jantzigintzaren eta dagokion logistikaren plangintza eta programazioa betetzeko beharrezkoa informazioa biltzen du.

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honek neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintza kudeatzeko plangintzaren, programazioaren eta logistikaren arloko prestakuntzan laguntzen duenez gero, proiekturako beharrezko materialen tipologia eta kantitateak identifikatzearekin eta zehaztearekin hastea proposatzen da. Horrez gain, hasteko, jantziak egiteko tresneriaren ezaugarriak ezagutzea ere proposatzen da.

Proiektua egiteko materialen eta tresneriaren beharrak ezagutu ostean, zer material zuzkitu beharko den definituko da, ondoren material hori antolatu eta biltegitatzeko, betiere logistikako oinarrizko teknikak tresna konbentzional eta informatiko bidez aplikatuta.

Ondoren, neurrirako eta ikuskizunetarako proiektuak egiteko beharrezko ekintzak programaturako dira, kalitatea kudeatzeko ekintzak barne, eta proiektu horien garapenean

esku hartu behar duten materialak, tresneria eta profesionalak identifikatzen eta kuantifikatzen dira.

Proiektuetarako beharrezko ekintzak programatu ostean, aurrekontuak landuko dira. Aurrekontuetan, bestalde, merkatuan indarrean dauden prezioak aplikatuko dira eta beharrezkoak izango diren giza baliabideak eta baliabide materialak hartuko dira kontuan, baita dauden epeak ere.

Halaber, zehaztasunez definituko da jantzigintzako proiektua, beharrezkoak diren bezeroei aholkuak eta arreta emateko teknikak aplikatuta.

Nahitaezkoa izango da bezero izan daitezkeen errekamazioei, kexei edo iradokizunei behar bezala eta profesionaltasunez erantzutea. Jardun-prozedurak eta -irizpideak ezagutu eta aplikatuko dira, eta errekamazioei eraginkortasunez eta azkar emango zaie konponbidea. Bezerorik gabe ez dago ez enpresarik, ez proiekturik.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, kontzeptuzko edukiak eta prozedurazkoak batera landuko dira, prozesuaren ezagutza globala eta koherentea lortzeko, kasu honetan bi edukiek garrantzi handia dute eta.

Ikasleak baliabideak, oro har, lortzeko eta kudeatzeko lanetan zentratzea proposatzen da eta, horretarako, fitxa teknikoetatik abian jarri beharko diren lan-jardueren antolamendua eta sekuentziazioa izango da abiapuntu –izatez, fitxa teknikoetan agertuko dira material, tresneria eta abarren arloko beharrak–.

Bezeroak egiteak eta mantentzeak garrantzi handia duenez gero, oso komenigarria izango da egin beharreko jardueren aukeraketa egokia egitea, eta horietan honako alderdi hauek lantzea:

- a) Bezeroari informazioa eta aholkuak emateko komunikazio-teknikak erabiltzea eta aplikatzea, jantzia egiteko prozesuaren aurretik eta ondoren.
- b) Errekamazioak kudeatzea.
- c) Gatazkei eta errekamazioei aurre egiteko teknikak.
- d) Egindako zerbitzuan hobekuntzak egitea.

Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuen artean daude: prozesuaren fase bakoitzean kalitate-teknikak aplikatzea, segurtasun-neurriak aplikatzea, eta jardunean norbera babesteko tresneriak aplikatzea.

Gomendagarritzat hartzen da banako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, talde-lanaren bidez, profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanaren zailtasunak eta abantailak ere jabetuko dira.

Komeni da moduluaren amaieran prozedurazko eta laburpeneko unitate didaktiko bat sartzea. Hala, bereganatutako ezagupenen bidez, ikasleek gai izan beharko dute sortutako edozein egoerari aurre egitea, moduluan inplizitu dagoen profesionaltasuna erakutsiz.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jantzia egiteko materialen eta tresneriaren beharrak zehaztea:
 - Materialak hautatzea. Jantzi motak: arrazoiak, kolorea eta etiketak.
 - Materialen, oihalen, osagarrien eta apainduren laginak lantzea.

- Ehunak ehunduraren, eroriaren eta bolumenen arabera sailkatzea.
 - Materialak biltegian antolatzea.
 - Baliabideak optimizatzea.
- ✓ Baliabide materialen hornikuntza eta biltegitratzea definitzea:
- Materialak identifikatu eta kontrolatzea. Harrera-fitxak.
 - Materialak katalogatzea, kokatzea eta jartzea. Kontserbazioa.
 - Inbentarioak kontrolatzea. Erregistro-liburua: materialen sarrera eta irteera.
 - Kostu logistikoak eta stockak kudeatzea.
 - Bezeroen eta hornitzaileen fitxategiak lantzea. Egitura eta eguneratzea.
- ✓ Neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintzako proiektuak egiteko beharrezko ekintzak programatzea:
- Baliabideak hornitzea. Lana antolatzea. Baliabideak optimizatzea.
 - Beharrezko teknikak eta profesionalak kalkulatzeko.
 - Materialak kalkulatzeko. Laginak prestatzea.
 - Makinak kalkulatzeko, egin beharreko eragiketa kopuruaren eta motaren arabera.
 - Beharrezko profesionalak kalkulatzeko.
 - Eragiketa bakoitzerako eta prozesu osorako aurreikusitako denbora kalkulatzeko.
 - Dokumentuak lantzea eta interpretatzea.
 - Proiektuen artxiboak egitea.
- ✓ Neurrirako eta ikuskizunetarako jantzigintzako aurrekontuak egitea:
- Erabilitako materialen prezioak kostuetan aplikatzea.
 - Aurrekontuak egiteko oinarritzko dokumentazioa prestatzea.
 - Ehuneko jantzien eta gaien kostu-dokumentuak egitea. Lehengaien eta gai osagarrien kostuak, produkzio-kostuak eta egitura-kostuak kalkulatzeko.
 - Aurrekontuan eragina duten zuzeneko eta zeharkako gastu materialak ondorioztatzea.
 - Salmenta-prezioa zehaztea.
 - Aurrekontuak egitea. Aurrekontua negoziatzea.
 - Programa informatikoak aplikatzea.
- ✓ Neurrirako edo ikuskizunetarako jantzigintzako proiektua definitzea:
- Proiektua formalizatzea.
 - Enpresako ekintza-plana lantzea.
 - Aurrekontuak egitea.
 - Agindua formalizatzea.
 - Proiektuaren onarpena egiaztatzea.
 - Eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea egiaztatzea.
 - Zerbitzuak egiteari lotutako oinarritzko dokumentazioa lantzea.
 - Bezeroak ematen dituen materialak identifikatzea eta kontrolatzea.
 - Bezeroen fitxategi eguneratua egitea. Informatika-tresnak erabiltzea.
 - Aplikatzeko moduak. Proben datak eta emateko epea betetzea.
- ✓ Erreklamazio, kexa edo iradokizunei erantzutea:
- Erreklamazioaren testuingurua osatzen duten elementu formalak identifikatzea.
 - Erreklamazioak kudeatzea.
 - Jantzigintzako proiektuekin lotzen den oinarritzko dokumentazioa egitea.
 - Erreklamazioen, kexen edo iradokizunen eskuko erregistroa eta erregistro automatizatua egitea.
 - Establezimenduan erregistratu beharreko informazioa ezagutzea.
 - Egindako zerbitzuan hobekuntzak egitea.
 - Erreklamazioak kudeatzeko informatika-tresnak erabiltzea.



4. lanbide-modulua

IKUSKIZUNETAKO JANTZIAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikuskizunetako jantziak
Kodea:	0587
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	120 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1518_3: Jantzien garapena planifikatzea, proiektu artistikoaren jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik. UC1521_3: Ehunezko materialak eta ehunezkoak ez direnak transformatzea, ikuskizunetako jantzietan erabiltzeko.
Helburu orokorrak:	11.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Proiektu artistikoetako estilo- eta genero-eskakizunak zehazten ditu, produkzio-beharrak eta behar teknikoak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Proiektuaren estiloa eta generoa ezaugarritu du.
- Proiektuari dagokion denbora-eta espazio-testuingurua identifikatu du.
- Proiektuko pertsonaien jantzi-marrazkiak egin ditu.
- Jantzi-marrazkian irudikatzen den jantziaren piezak identifikatu ditu.
- Antzezlearen zilueta transformatzen duten egiturak edo elementuak aztertu ditu.
- Jantzia osatzen duten piezen xehetasunen diseinua zehaztu du.
- Beste elementu batzuk (arnesak) erabiltzea eskatuko duten janzkeraren, hegaldien edo mugimenduen balizko efektuak edo aldaketak aztertu ditu.
- Jantzian integratu edo ezkutatu behar diren janzkeraz kanpoko gailu edo elementu guztietarako irtenbide teknikoak proposatu ditu.

2. Jantzi-marrazkietan planteatutako proiektuko jantziak eta objektuak lantzen ditu, jantzigintzako eta egokitzeneko teknikarik egokienak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziak lortzeko teknikarik egokiena hautatu du.
- b) Proposatutako materialen ezaugarriak hartu ditu aintzat.
- c) Hainbat materialetako konponbide teknikoak zehaztu ditu.
- d) Prozesuen eta gauzatze-tekniken sekuentzia definitu du.
- e) Modeloaren behin betiko mihiztaketarekin lotzen diren makinak eta tresnerien beharra aztertu du.
- f) Piezen formak eta bolumenak lortu ditu.
- g) Modelatzearen eta patroigintzaren teknikak zuzen aplikatu ditu.
- h) Ebakitzeko eta mihiztatzeko teknikak zuzen aplikatu ditu.

3. Manikian edo euskarri birtualean egiten ditu probak, eta, horretarako, jantziaren elementuak doitzen ditu, zuzenketak markatzen ditu eta beharrezko bolumenak egiaztatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziak manikian edo euskarri birtualean jarri ditu.
- b) Probaren markak eta zuzenketak definitu ditu.
- c) Jantziak eszena-erabileran duen funtzionalitatea aztertu du.
- d) Jantziak behin betiko balioesteko materialen eta doikuntzen segurtasuna eta fidagarritasuna aztertu du.
- e) Itxierako sistemak, ezarkinak eta apaindurak amaitu eta, hala badagokio, ezkutatu ditu.

4. Jantzi-marrazkien eskakizunen arabera egiten du jantzi-koadernoak, jantzi-marrazkiaren interpretazioaren ondoriozko ezaugarri artistikoak eta teknikoak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Modeloetako bakoitzaren analisiaren ondorioak jantzi-koadernoan jaso ditu.
- b) Jantzien diseinuan agertzen ez diren xehetasun edo eskakizun bereziak jasoarazi ditu.
- c) Jantzi-koadernoan antzezleen neurrien fitxak gaineratu ditu.
- d) Hornikuntzako beharrak eta proiektua garatzeko materialen ezaugarriak zehaztu ditu.
- e) Proiektua garatzeko beharrezko makinak eta tresneria zehaztu ditu.

5. Materialak transformatu ditu, ikuskizunetako jantzietan erabiltzeko, betiere eskuko transformazio-teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik, identifikatu ditu beharrezko materialen transformazioak.
- b) Eskuz egin daitezkeen teknikak eta horiek gauzatzeko prozesuak deskribatu ditu.
- c) Hainbat teknika aplikatzeko beharrezko erremintak eta materialak hautatu ditu.

- d) Ehun-materialak eta beste batzuk eskuz tindatzeko teknikak aplikatu ditu, jantzi-marrazkien adierazpenak abiapuntu izanik.
- e) Ehuna margotzeko eskuko teknikak aplikatu ditu, jantzi-marrazkietan aurreikusten diren efektuak ikuskizunetako jantzietan lortzeko.
- f) Eszenako jantzietan ehunezkoak ez diren materialak manipulatzeko teknikak aplikatu ditu, jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik.
- g) Zahartze-teknikak aplikatu ditu, eszenako jantzian efektuak lortzeko, jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik.
- h) Teknikak aplikatzean, norberaren eta ingurumenaren segurtasun-arauak bete ditu.

c) Oinarrizko edukiak

1. PROIEKTU ARTISTIKOETAKO ESTILO ETA GENERO ESKAKIZUNAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	- Ikuskizunetako estiloak eta generoak interpretatzea. - Sormen-prozesuak. Sormen-iturriak. Prozesua dokumentatzea. - Jantzien osaera. Jantzia. Zatikatzea. - Informazioa antolatzea. - Aplikatutako informazioa: Internet, informazio-bilatzaileak.
kontzeptuzkoak	- Garaien eraginak. Jantzerako aldaketak. - Jantzi-marrazkietako diseinu-teknikak. - Eskakizun teknikoak eta artistikoak. - Tresneria artistikoa. Tresneria teknikoa. - Hainbat ikuskizun-generotarako jantziak. Erakusteko baldintzak. - Ikuskizunean jarduteko protokoloa.
jarrerazkoak	- Estiloak eta garaiak behatzeko eta interpretatzeko interesa. - Ekimena dokumentuak biltzean eta aztertzean. - Ordena informazioan.

2. PROIEKTUAREN JANTZIAK ETA OBJEKTUAK EGITEA	
prozedurazkoak	- Ikuskizunetako jantzien eta objektuen dokumentazioa lantzea. - Armairua kudeatzea. Merkaturatutako jantziak. - Jantzien zatiak desmuntatzea. Jantziak transformatzea eta piezak kopiatzea. - Lantzeko prozesua antolatzea. - Proiektua programatzea. - Jantziak prestatu eta muntatzea. - Errepresentazioetan izango duten erabilerara egokitzea jantziak. - Itxierak eta apaindurak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Ikuskizunetarako jantziak egokitze eta aldatzeko teknikak. - Materialen ezaugarrien eragina. - Mihizatze eta akaberak egiteko makinak, lanabesak eta osagarriak. - Akaberak. Jantzietarako egiturak, errefortzuak eta armatuak. - Kalitate-kontrola, jantzigintzari aplikatuta. - Jantziak erabiltzeko eta mantentzeko argibideak.
jarrerazkoak	- Ikuskizunetarako jantziak eta objektuak bilatzeko interesa izatea.

	- Ordenaz eta metodoz antolatzea. - Ekimenez egokitzea prozedurak.
--	---

3. MANIKIAN EDO EUSKARRI DIGITALEAN PROBAK EGITEA

prozedurazkoak	- Probetarako jantziak prestatzea. Jantziak jartzea. - Lehen proba. Doikuntza artistikoak eta teknikoak zehaztea. - Zuzenketak eta markak. Fintzea. - Bigarren proba. - Jantzia osatzen duten piezak prestatzea. - Elementuak txertatzea: kanpokoak eta barnekoak, ikusgarriak eta ikusezinak. - Jantzi-marrazkia, produkzioa eta eszena-espazioa egokitzea. - Prozesuaren beharrezkoa dokumentazio teknikoa lantzea.
kontzeptuzkoak	- Jantziaz kanpoko elementuak. - Proiektuaren eskakizun teknikoak eta artistikoak.
jarrerazkoak	- Soluzioak bilatzeko ekimena. - Izpiritu sortzailea.

4. JANTZI KOADERNOA EGITEA

prozedurazkoak	- Koadernoaren egitura egitea. - Atalak eta sekzioak banatzea. - Protokoloak ezartzea. - Informazio artistikoa, teknikoa eta plangintzakoa antolatzea. - Prozesuaren barruan informazioa eguneratzea. - Sortutako edo aldatutako dokumentazioaren artxiboa lantzea.
kontzeptuzkoak	- Proiektuaren informazioa.
jarrerazkoak	- Koherentzia zaintzea egituran eta antolamenduan. - Informatuta eta eguneratuta egotearen beharra balioestea. - Ordenaz artxibatzea informazioa.

5. IKUSKIZUNETAKO JANTZIETAKO MATERIALAK TRANSFORMATZEA

prozedurazkoak	- Beste material batzuekin esperimentatzea. - Brodatuen imitazioak egitea, txantilo bidez estanpatuak egitea, amarruak egitea eta ukituak egitea estanpatu industrialetan. - Moldeak eta erreproduzioak lortzea. - Ikuskizunetako jantzietan aplikatutako materialak transformatzeko prozesuetan, laneko arriskuak prebenitzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Egiturak hainbat materialetan egiteko teknikak. - Tindugabetzeak, tinduak, lisoak, degradatuak eta abar. - Koloreen nahasketa. - Eszenako jantzietan aplikatzekoak diren tindaketako teknikak eta eskuko estanpazioko teknikak. - Materialak eta erremintak. Eskuko tindaketako lan-prozesua.

	- Eszenako jantzi-tara aplikatutako lanabes-teknikak. Materialak eta erremintak: hari-eskuilak, guraizeak, lixak eta abar. - Eszenako jantzi-tara aplikatutako zehartze-teknikak.
jarrerazkoak	- Izpiritu kritikoa informazio teknikoko prozesuan. - Sormena tekniken aplikazioan. - Laneko arriskuen prebentzioarekiko konpromisoa.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek ikuskizunetarako eszenako jantziak egiteko beharrezko prestakuntza biltzen du.

Irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluari hasiera emateko, behar artistikoetara egokitutako estiloaren eta generoaren eskakizunak zehaztuko dira, proiektuaren denbora- eta espazio-testuingurua identifikatuta.

Hasiera batean, garrantzi handikoa da jantziak lortzeko teknikarik egokienak erabili behar direla kontuan hartzea, betiere materialen ezaugarriak kontuan hartuta eta jantziak errepresentaziora egokitzeko akaberak, errefortzuak eta armatuak aintzat hartuta.

Interpretazio teknikoak deskribatu ondoren, manikiaren edo euskarri birtualaren gainean egingo dugu proba, jantziaren elementuetan doikuntzak egiteko, zuzenketak markatzeko eta jantziak eszena-erabileran izango duen funtzionalitatea aztertzeke.

Ondoren, jantzi-marrazkien eskakizunen arabera egingo du jantzi-koadernoak, jantzi-ezaugarri artistikoak eta teknikoak aztertuta.

Azkenik, eszenako jantzian efektuak lortzeko tindaketa, estanpazio, zahartze eta beste eskuko teknika batzuen bidez egingo diren materialen transformazioak garatuko dira. Hori guztia dagozkion segurtasun- eta higie-ne-arauak kontuan izanik egingo da.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honi ekin aurretik, ikasleak jantziak eta objektuak egiteko prozesu osoan kokatu beharko dira.

Ikaskuntza, funtsean, prozeduren inguruan antolatu beharko da. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte lortu beharreko abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Modulu hau batez ere prozedurazkoa da. Horregatik, beharrezkoa izango da jarduerak hainbat aldiz egitea –hainbat jantzi eta gai eta hainbat material erabilita–, tekniketan eboluzionatzea, eta zailtasun-maila arian-arian areagotzea.

Modulua amaitzean, eta eskuratutako trebetasunen eta ezagutzen benetako iritsiera erakusteko, komeni da lan-prozesu osoa egitea eta sintesi- eta analisi-ahalmena erakustea. Horretarako, moduluan lortutako ezagutzak eta trebetasunak hautatu eta aplikatuko dira, irizpide teknikoei, estetikoiei eta erabilerakoei erreparatuta.

Behar-beharrezko da liburu, pintura, zinema eta Internet bidez, besteak beste, informazioa bilatzeak eta ondorengo tratamenduak duten garrantzia ulertaraztea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Proiektu artistikoetako estilo eta genero eskakizunak zehaztea:
 - Ikuskizunetako estiloak eta generoak identifikatzea.
 - Sormen-prozesuak. Sormen-iturriak. Prozesua dokumentatzea.
 - Jantzien osaera. Jantzia. Zatikatzea.
 - Informazioa antolatzea.
 - Aplikatutako informazioa: Internet, informazio-bilatzaileak.
- ✓ Proiektuaren jantziak eta objektuak egitea:
 - Armairua kudeatzea. Merkaturatutako jantziak.
 - Jantzien zatiak desmuntatzea. Jantziak transformatzea eta piezak kopiatzea.
 - Lantzeko prozesua antolatzea.
 - Proiektua programatzea.
 - Jantziak prestatu eta muntatzea.
 - Jantziak errepresentazioetan izango duten erabilerara egokitzea.
 - Itxierak eta apaindurak aplikatzea.
- ✓ Manikian edo euskarri digitalean probak egitea:
 - Probetarako jantziak prestatzea. Jantziak jartzea.
 - Lehen proba. Doikuntza artistikoak eta teknikoak zehaztea.
 - Zuzenketak eta markak. Fintzea.
 - Bigarren proba.
 - Jantzia osatzen duten piezak prestatzea.
 - Elementuak txertatzea: kanpokoak eta barnekoak, ikusgarriak eta ikusezinak.
 - Jantzi-marrazkia, produkzioa eta eszena-espazioa egokitzea.
 - Prozesuaren beharrezkoa dokumentazio teknikoa lantzea.
- ✓ Jantzi-koadernoaren egitea:
 - Koadernoaren egitura egitea.
 - Atalak eta sekzioak banatzea.
 - Protokoloak ezartzea.
 - Informazio artistikoa, teknikoa eta plangintzakoa antolatzea.
 - Prozesuaren barruan informazioa eguneratzea.
 - Sortutako edo aldatutako dokumentazioaren arxiboa lantzea.
- ✓ Ikuskizunetako jantzietako materialak transformatzea:
 - Beste material batzuekin esperimentatzea.
 - Brodatuen imitazioak, txantilo bidez estanpatuak, amarruak eta ukituak estanpatu industrialetan.
 - Moldeak eta erreproduzioak lortzea.
 - Ikuskizunetako jantzietan aplikatutako materialak transformatzeko prozesuetan laneko arriskuak prebenitzeko arauak aplikatzea.

5. lanbide-modulua

JOSKINTZA KLASIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Joskintza klasikoa
Kodea:	0588
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	160 ordu
Kurtoa:	2.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1516_3: Neurrirako jantzietarako ebaketa, jantzigintza, proba eta akaberetako prozesuak gainbegiratzea eta egitea.
Helburu orokorrak:	12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Joskintzaren esparruko modeloaren dokumentazio teknikoa lantzen du, jantziak, horien izaera, forma eta ezaugarriak identifikatuta eta ezaugarrituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jantzi mota, materialak eta osagarriak definitu ditu, baita modeloaren ezaugarri teknikoak eta artistikoak ere.
- Bezeroaren neurrien fitxa egin du.
- Neurrien arabera definitu du tailua.
- Euskarri fisikoetan eta digitaletan egiaztatu du tailu normalizatuekin bat datozen gizonezkoen eta emakumezkoen joskintzako jantzien patroiak egon badaudela.
- Modeloaren informazioari buruzko dokumentazio teknikoa, neurrien fitxak, patroiak eta lan-agindua landu eta artxibatu du.

2. Modeloaren patroiak lortzen ditu, oinarri-patroietan tailuen ondoriozko transformazioak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Behar bezala hautatu ditu modeloaren oinarri-patroiak, neurrietara egokitutako tailuaren arabera.

- b) Hautatutako modeloak duen patroia multzoa zehaztu du.
- c) Ehunaren arabera eta haren behar bezalako egokigarritasunaren arabera zehaztu ditu josturak, lasaierak, zabalduak eta kapsulatuak.
- d) Aldagai teknikoak, morfologikoak eta artistikoak kontrolatu ditu.
- e) Modeloaren patroia guztiak lortu ditu, ondoren erabiltzeko behar bezala erreferentziatuta eta prestatuta.

3. Probarako jantzia lortzen du, eskuz mihiztatzeko teknikak aplikatuta eta beharrezko tarteko eragiketak eginda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaketarako luzatu ditu ehunak eta materialak.
- b) Modeloaren piezak materialen gainean banatu ditu.
- c) Modeloa osatzen duten piezetako bakoitza identifikatu eta ebaketa egin du, ondoren mihiztatzeko.
- d) Mihizatzearen aurreko lehen lotura-eragiketak deskribatu eta egin ditu.
- e) Jantzia eskuz edo makinaz mihiztatzeko teknikak eta prozedurak aztertu eta aukeratu ditu.
- f) Jantziak egiteko eta lisatzeko makinak hautatu eta abian jarri ditu.
- g) Pieza nagusien mihiztaketa pieza horien dimentsioekin edo formekin bat datorrela egiaztatu du.

4. Pertsonaren edo manikiaren gainean egiten du proba eta jantziaren balantzea egiten du, plomatzei eta horren eraginei buruzko iritzi orokorrak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziaren doikuntzak egin ditu, eskakizun estetikoak eta teknikoak kontuan hartuta.
- b) Jantziak manikiaren gainean jartzean, ziluetara egokitzen direla egiaztatu du.
- c) Aldaketa edo ekarpen berri guztiak behar bezala definitu ditu.
- d) Bigarren mailako elementu eta osagarri guztien kokalekua kontrolatu eta markatu du.
- e) Lanabes eta tresna egokiekin egin ditu jostura kentzeko eta desmuntatzeko eragiketak.

5. Behin betiko jantzia egiten du, proban lortutako zuzenketekin eta doikuntzekin, betiere desmuntatzeko, fintzeko eta mihiztatzeko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proba doitu ostean, modeloaren pieza guztiak findu eta gainjarri ditu.
- b) Mihiztatu aurretik osagai nagusien akabera ziurtatuko duen jantzia egiteko teknika definitu du.
- c) Mihiztaketa-eragiketen prozesu ordenatua deskribatu eta egin du, jantziaren marken arabera.
- d) Bigarren probarekin, jantziaren doikuntza zuzena egiaztatu du.
- e) Botoi-zuloak egiteko, presio-krasketak jartzeko eta ertzak txikitzeko eragiketak aztertu eta egin ditu: papar-hegalak eta lepoak.

6. Jantzia erakusten du, eta, horretarako, joskintzako berezko akabera, etiketatze eta aurkezpeneko prozesuak gauzatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Akabera-prozesuaren berezko jarduerak identifikatu ditu.
- Jantziaren akabera zuzenerako erreminta, makina eta osagarriak hautatu ditu.
- Makinen manipulazioan segurtasun-arauak aplikatu ditu.
- Makinan kokatu du jantzia, eta, behar izanez gero, jantziaren konformazio zuzena errazten duten orkoiak eta osagarriak erabili ditu.
- Jantziaren azken kalitatea eskatzen den kalitatearekin bat datorrela egiaztatu du.

c) Oinarrizko edukiak

1. MOLDEAREN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA	
prozedurazkoak	- Ehun eta larruko joskintzako jantziak aztertzea. Neurriak ondorioztatzea. Oinarri-patroien artxiboak egitea. Txantilo osagarriak. - Baliabideak antolatzea eta hornitzea. - Lan-prozesurako beharrezko dokumentazioa eta informazio teknikoa egitea. - Bezeroen fitxak egitea.
kontzeptuzkoak	- Ehun eta larruko joskintzako jantzi motak. - Jantziaren ezaugarriak eta zatiak. - Zuzeneko neurketak. Emakumezkoen eta gizonezkoen anatomia. Proportzioak.
jarrerazkoak	- Behatu eta aztertzeko jarrera. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean eta neurketa egitean. - Kalitatearekiko konpromisoa jarduerak garatzean.

2. MODELOAREN PATROIAK LORTZEA	
prozedurazkoak	- Modeloak identifikatzea. - Azterketa estetiko-anatomikoa egitea: irudi normala, zuzena, kurbatua, makurtua. - Analisi teknikoa eta funtzionala egitea. Ereduaren bideragarritasuna, egokitzapena eta erosotasuna ziurtatzea. - Patroiak trazatzea. Konfigurazioaren arabera transformatzea. - Patroien artxiboak egitea.
kontzeptuzkoak	- Gorputzaren konfigurazioak. - Erabiltzeko baldintzak. Kalitate-arauak. - Neurrien taulak. Jantzien eta merkatuaren arabeko tailu normalizatuak. - Patroien motak eta ezaugarriak: oinarriak eta transformatuak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna interpretazioan eta analisisian. - Zuhurtasuna eta autonomia patroiak trazatzean eta transformatzean.

3. PROBARAKO JANTZIA LORTZEA

prozedurazkoak	- Lan-plana antolatzea. Ebaketarako prestatzea. - Ehunak egiaztatzea. - Markatzearen optimizazioa eta errendimendua ziurtatzea. - Eskuzko ebaketako lanabesak eta erremintak identifikatzea. - Ebaketa-makina elektriko eramangarriak maneiatzea. - Markaketaren zatikatzea egitea. - Prozesuaren kalitatea kontrolatzea. - Moztutako osagaiak prestatzea. Moztutako piezak identifikatzea, etiketatzea eta paketatzea. - Tarteko eragiketak egitea. Artehunak eta itsasgarriak aplikatzea. - Termofinkatzeko makineria edukitzea. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea. - Ebakitzeko makinen eta tresnen lehen mailako mantentze-lanak egitea. - Lanpostua antolatzea: ergonomia eta segurtasuna.
kontzeptuzkoak	- Ehunak eta larruak zabaltzeko teknikak. - Markatzeko teknikak. - Ehunen eta larruen ebaketa konbentzionala: ezaugarriak eta aplikazioak. - Ebaketa-parametroak. - Ebaketa konbentzionalaren sekuentzia eta eragiketak. - Artehunak eta itsasgarrien motak eta ezaugarriak. Aplikazio-eremuak. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna prozedurak aplikatzean. - Arretaz kontserbatzea eta erabiltzea tresneria eta erremintak. - Kalitatearekiko konpromisoa jarduerak garatzean. - Zorroztasuna segurtasun-arauak betetzean.

4. PROBA EGITEA

prozedurazkoak	- Piezak eskuz mihiztatzea probarako. - Probak egitean irizpideak aplikatzea. Modeloa egiaztatzea. - Irudi pertsonaleko proportzio errealean zuzenketa optikoak egitea. - Zuzenketak eta markak egitea. Fintzeak eta doikuntzak. - Sortutako informazioaren artxiboa biltzea. - Behin betiko mihiztatzearen aurreko eragiketak aplikatzea. Markak pasatzea.
kontzeptuzkoak	- Jantzien egitura. Ezaugarriak. - Egokitze teknikak. - Joskintzako jantziak muntatzea. - Proba egiteko irizpideak.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna eta autonomia prozedurazko eragiketetan. - Doitasuna lanak egitean. - Behatu eta aztertze jarrera.

5. BEHIN BETIKO JANTZIA EGITEA	
prozedurazkoak	- Fabrikazioko oinarri-elementuak egiaztatzea. Lepoa, mahukak, poltsikoak, forruak, barrenak, aurrealdeak, bizkarraldea, eta abar. - Jantzia egiteko prozesua antolatzea: eragiketen zerrenda. - Mihiztatzeko lanabesak, makinak eta materialak erabiltzea. Jostea eta itsastea. - Makinak doitzea. - Orratzak hautatzea. - Ezarritako kalitate-kontrolak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Fabrikazioko oinarri-elementuak. Lepoa, mahukak, poltsikoak, forruak, barrenak, aurrealdeak, bizkarraldea, eta abar. - Fabrikazio-urratsak. Prestaketa. Muntaia. Jantziaren akabera. - Eskuz eta makinaz mihiztatzeko teknikak. - Hariak. Harien tentsioa. - Puntaden dentsitatea. - Kalitate-parametroak, materialen loturan. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna zaintzea prozesuan. - Arintasunez jardutea doikuntzetan. - Segurtasun-arauak betetzea.

6. JANTZIA ERAKUSTEA	
prozedurazkoak	- Itxierak eta apaindurak aplikatzea. - Jantzia eskakizunetara doitzea.
kontzeptuzkoak	- Joskintzako jantzietan akaberrak egiteko faseak. - Akabera motak. - Irizpideak eta aplikazioak akaberran. Ehun- eta larru-materialen araberrako hautespena: ertzak, puntuitsuak, puntu biziak, botoi-zuloak. - Eskuko edo makinako eragiketak. - Lisatzeko teknikak. Jantziaren orkoiztatzea. - Lisatzearen parametroak. - Joskintzako produktuak aurkezteko metodoak.
jarrerazkoak	- Azken emaitza hobetzeko interesa. - Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta txukuntasuna prozesuan.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek joskintzaren esparruan jantzi klasikoak neurrira egiteko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza eskaintzen du. Modulu honen bidez, joskintza klasikoko berariazko teknikak garatzea –patroiak eta prototipoak egiteko lanetan aplikatuta– ahalbidetzen duten oinarriko trebetasunak lortuko dira.

Irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Hasteko, modeloaren dokumentazio teknikoa landuko da, eta, eginkizun horretan, jantzia aztertuko da, neurrien murrizketa aplikatuko da eta baliabideen hornikuntza egingo da.

Hori aztertu ostean, modeloa interpretatuko da eta analisi anatomiko-estetikoa, teknikoa eta funtzionala egingo da. Patroiak konfigurazioaren arabera trazatu eta transformatuko dira.

Prozesuarekin jarraitzeko, ehunaren aprobetxamendu handiagoa ziurtatuko duen moduan antolatu beharko da lana. Ebakitzeko erremintak hautatuko dira. Ebakitako piezak behar bezala seinaleztatu eta identifikatuko dira paketatuta aurretik, ondoren artehunak eta itsasgarriak aplikatzeko.

Ondoren, piezak eskuz mihiztatuko dira probarako. Jantziaren zuzenketa egitean, berriz, eskakizun estetikoetara eta teknikoetara egokitzen dela egiaztatuko da.

Modeloa gainbegiratu ostean, eta beharrezkoa bada, zuzenketak egingo dira eta markak pasako dira, jantzia fintzeko eta doitzeko eta behin betiko mihiztatzeari ekiteko.

Lortutako emaitzak eta deskribatutako zehaztapen teknikoak kontuan izanik, egiaztatuko dira fabrikazioko oinarri-elementuak eta doituko dira makinak –jantziak egiteko prozesuan erabiltzeko egokituta–. Prozesuaren fase bakoitzean, produktua lortzeko beharrezko kalitatea hartuko da kontuan.

Lanaren fase bakoitzean, arriskuen prebentzioari eta norberaren segurtasunari buruzko araudia hartu beharko da beti kontuan.

Azkenik, akaberetako eragiketetan, jantziak lisatzeko parametroak materialen arabera kontrolatuko dira. Lortutako kalitatea hasiera batean eskatzen denarekin bat datorrela egiaztatu beharko da. Beharrezkoa bada, eskakizunetara egokituko da jantzia.

2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, prozeduren inguruan antolatu beharko da. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotuko zaizkie. Hain zuzen, horiekosatzen dituzte lortu beharreko abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Jarduera horiek eskulangintzarekin lotutako prozedurazko eduki nabarmena dute, eta bezeroen beharrei eta itxaropenei erantzutera bideratuta daude. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko komeni da jarduerak zenbaitetan errepikatzea, horietako bakoitzean hainbat jantzi eta gaitan hainbat material erabilia; zailtasuna arian-arian areagotuta tekniketan eboluzionatzea lortzeko.

Modulua amaitzean, eskuratutako ezagupenen eta trebetasunen benetako maila frogatu behar da, eta kasuak kasu eskatutako berezitasuna kontuan izanda eta ezarritako kalitatea lortuta lan oso bat egiteko gaitasuna lortu beharko da.

Helburu horiek lortzeko, ikasleek analisi- eta ebazpen-ahalmena jarri beharko dute jokoan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Moldearen dokumentazio teknikoa lantzea:
 - Ehun eta larruko joskintzako jantziak aztertzea. Motak.
 - Neurriak ondorioztatzea. Oinarri-patroien artxiboak egitea. Txantilo osagarriak.
 - Baliabideak antolatzea eta hornitzea.
 - Lan-prozesurako beharrezko dokumentazioa eta informazio teknikoa egitea.
 - Bezeroen fitxak egitea.
- ✓ Modeloaren patroiak lortzea:
 - Modeloak identifikatzea.
 - Azterketa estetiko-anatomikoa: irudi normala, zuzena, kurbatua, makurtua.
 - Analisi teknikoa eta funtzionala egitea. Ereduaren bideragarritasuna, egokitzapena eta erosotasuna ziurtatzea.
 - Patroiak trazatzea. Konfigurazioaren arabera transformatzea.
 - Patroien artxiboak egitea.
- ✓ Probarako jantzia lortzea:
 - Lan-plana antolatzea. Ebaketarako prestatzea.
 - Ehunak egiaztatzea.
 - Markatzearen optimizazioa eta errendimendua ziurtatzea.
 - Eskuzko ebaketako lanabesak eta erremintak identifikatzea.
 - Ebaketa-makina elektriko eramangarriak maneiatzea.
 - Markaketa zatikatzea.
 - Prozesuaren kalitatea kontrolatzea.
 - Moztutako osagaiak prestatzea. Moztutako piezak identifikatzea, etiketatzea eta paketatzea.
 - Tarteko eragiketak egitea. Artehunak eta itsasgarriak aplikatzea.
 - Termofinkatzeko makineria edukitzea.
 - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.
 - Ebakitzeko makinen eta tresnen lehen mailako mantentze-lanak egitea.
 - Lanpostua antolatzea: ergonomia eta segurtasuna.
- ✓ Proba manikiaren edo pertsonaren gainean egitea:
 - Joskintzako jantziak muntatzea. Piezak eskuz mihiztatzea probarako.
 - Piezak eskuz mihiztatzea probarako.
 - Probak egitean irizpideak aplikatzea. Modeloa egiaztatzea.
 - Egokitzeko teknikak aplikatzea.
 - Irudi pertsonaleko proportzio errealean zuzenketa optikoak egitea.
 - Zuzenketak eta markak egitea. Fintzeak eta doikuntzak egitea.
 - Sortutako informazioaren artxiboa biltzea.
 - Behin betiko mihiztatzearen aurreko eragiketak aplikatzea. Markak pasatzea.
- ✓ Behin betiko jantzia egitea:
 - Fabrikazioko oinarri-elementuak egiaztatzea. Lepoa, mahukak, poltsikoak, forruak, barrenak, aurrealdeak, bizkarraldea, eta abar.
 - Jantzia egiteko prozesua antolatzea: eragiketen zerrenda.
 - Mihiztatzeko lanabesak, makinak eta materialak erabiltzea. Jostea eta itsastea.
 - Makinak doitzea.
 - Orratzak hautatzea.
 - Ezarritako kalitate-kontrolak aplikatzea.
- ✓ Jantzia erakustea:



- Itxierak eta apaindurak aplikatzea.
- Jantzia eskakizunetara doitzea.

6

6. lanbide-modulua

MODA ETA JANZTEKO JOERAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Moda eta janzteko joerak
Kodea:	0589
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	165 ordu
Kurtoa:	1.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1513_3: Jantzeraren ziluetako, erabileretako eta ohituretako aldaketei buruzko informazioa bilatzea eta dokumentatzea.
Helburu orokorrak:	3.a / 16.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Historiaren barruan janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatzen ditu, giza gorputzarekiko proportzioak, formak eta materialak eta erabiltzen diren testuingurua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jantzia osatzen duten jantzien proportzioak zehaztu ditu, proposatutako ziluetak eta giza irudiaren aldaketak abiapuntu izanik.
- Gaur egungo jantzerako jantziei eta osagarriei dagokienez ohikoenak diren modelo estetikoak azaldu ditu.
- Historian erabilitako jantzi motak eta horien erabilerak zehazten dituzten faktoreak identifikatu ditu.
- Jantziak egitean aplikatutako teknikak eta materialak identifikatu ditu, horiek historian izan duten xedea, erabilera eta ohitura kontuan izanik.
- Hainbat jantzi aztertu du, eta emango zaien erabilerarekin eta erabiltzeko ohiturekin lotu du jantzien forma.

- f) Modeloak eta osagaiak erabileraren arabera sailkatu ditu, betiere populazio-segmentuak, sexua eta adina kontuan hartuta.
- g) Gizarte- eta lan-inguruneak irudi pertsonalean duen eragina baloratu du.

2. Eszenako jantziteria osatzen duten jantziak eta osagarriak –historian izan direnak– identifikatzen ditu eta horien materialak, diseinuak eta erabiltzen ziren testuinguruak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantzera motak eta horien bilakaera zehazten duten faktoreak deskribatu ditu, ikuskizunetarako jantzetan aplikatzeko.
- b) Hainbat garaitako janzkerak aztertu ditu, jantzi-marrazkiak edo jantziak behatuta eta jantziak eta horien formak identifikatuta.
- c) Garai jakin bateko jantziek behar dituzten proportzioak justifikatu ditu, espazio eszenikoa girotzeko.
- d) Antzezlearen zilueta aldatzen duten kanpoko edo barruko jantzien ezaugarriak deskribatu ditu.
- e) Garai jakin bateko zilueta gaur egungo giza irudiaren neurrietara egokitzeko, formen eta bolumenen proportzioetan izan diren aldaketak deskribatu ditu, betiere irizpide artistikoa kontuan hartuta.
- f) Gorpuzkera desberdineko pertsonak erabil ditzaketen garai jakin bateko jantzera motak identifikatu ditu, eta eszenako jantzia txerta daitezkeen aldaketak zehaztu ditu.

3. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako sektorearen historian izandako bilakaera deskribatzen du, joskinaren lanbidean izan dituen inplikazioak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Antzinaroko zibilizazioetako eta zibilizazio klasikoetako joskintzako lantegia eta joskinaren lanbidea deskribatu du.
- b) Jantzigintzan lehen ehungailuek izan zuten eragina baloratu du.
- c) Josteko lehen makinak eta joskintzan izandako eragina deskribatu du.
- d) Erdi Aroko eta Errenazimenduko ehungintza eta jantzigintza ezaugarritu du.
- e) Kofradien edo gremioen agerpena azaldu du.
- f) XVIII. mendeko industria-iraultzak produkzio-sektorean izandako bilakaera aztertu du.
- g) Teknologia berriek joskinaren lanbidearen orainean eta geroan eta produkzio-prozesuetan izandako eragina aztertu du.

4. Moda-joerak identifikatzen ditu, eta helburu duen biztanleria-sektorearekin eta kontuan hartutako denboraldiarekin lotutako informazio garrantzitsua balioesten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Joera bakoitzari lotutako materialen ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Helburu duen sektorearekin (haurrak, emakumeak, gazteak eta bestelakoak) lotu du joera.
- c) Nagusi den gizarte-testuinguruarekin (kirola, aisia eta etiketa, besteak beste) lotu ditu joerak.

- d) Hurrengo joerei buruzko informazioa lortzeko bide nagusiak identifikatu ditu.
- e) Informazioa hainbat iturritatik atera du (aldizkariak, albistegiak, Internet, erakusketak eta bestelakoak).
- f) Joeren eta kolore-konbinazioen inguruan lortutako informazioari buruzko txostena prestatu du.

5. Jantziei eta osagarriei buruzko informazio teknikoa eguneratzen du, eta, horretarako, informazio-iturriak identifikatzen ditu eta eduki adierazgarriak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektorearekin lotzen diren informazio teknikoko iturriak identifikatu ditu, eta horien fidagarritasuna egiaztatu du.
- b) Ehun-materialen eta osagarrien balizko hornitzaileak identifikatu ditu.
- c) Edertasun-kanonen, estiloen eta aldaketen sailkapenean aplikatzen den terminologia teknikoari buruzko informazioa sailkatu du, betiere ezaugarri fisikoei, profil psikosozialari eta laboralari dagokionez.
- d) Hainbat gizarte- eta lan-egoeratan aplikatzekoak diren janzkeraren arloko protokolo-arauei buruzko informazioa aztertu du.
- e) Dokumentazioa landu du hautatutako informazioarekin.

c) Oinarrizko edukiak

1. HISTORIAN JANZKERA OSATZEN DUTEN JANTZIAK ETA OSAGARRIAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	- Janzkeraren eta bere bilakaeraren ezaugarriak identifikatzea. - Gizateriaren historian janzkeran eragina duten faktoreak ezagutzea: teknikak eta materialak, erabilerak eta ohiturak. - Emakumezko eta gizonezko irudiak aztertzea eta interpretatzea. - Jantziak eta osagarriak ezaugarritzea. Proportzioak. - Jantzi baten osaera finkatzea. Osagaiak, formak eta bolumenak. - Gaur egungo modako diseinuak aztertzea, baita goi-mailako jostuntza eta <i>prêt-à-porter</i>.
kontzeptuzkoak	- Historian giza janzkeraren bilakaera. - Giza janzkeraren justifikazioa eta motibazioa. - Janzkeraren historia. - Gizateriaren historian janzkeran eragina duten faktoreak. - Antzinako gizakiaren eta lehen zibilizazioen janzkera. - Janzkera Antzinaroko inperio nagusietatik Erdi Arora arte. - Janzkera Erdi Arotik XIX. mendearen erdialdera arte. - Egungo moda-diseinuak. - Gizarte-aldaketak eta emakumearen lan-munduratzeari: modan izan duen eragina. - Goi-mailako jostuntzako diseinuak. - "Prêt-à-porter" diseinuak. - Janzkeraren protokoloak, testuinguruen arabera. - Diseinuaren araberrako modeloen produkzioaren eta eskusibitatearen kontzeptuak.
jarrerazkoak	- Informatuta egon beharra balioestea eta informazioa bilatzeko interesa izatea. - Eguneratuta egoteko interesa.

- Interesa informazioaren bilaketa historikoan.

2. ESZENAKO JANZKERA OSATZEN DUTEN JANTZIAK ETA OSAGARRIAK IDENTIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Modeloak eta osagarriak erabileraren, ohituren eta xedearen arabera sailkatzea. - Modeloa konformatzea. - Janzkera osatzen duten jantziak identifikatzea. - Jantziak eta horiek osatzen dituzten osagarriak ezagutzea. - Ikuskizunetako janzkera osatzen duten elementuak deskribatzea. - Txostenak egitea.
kontzeptuzkoak	- Antzinaroko antzerkiko janzkera: irudi klasikoa. - Erdi Aroko antzezlanetako janzkera. - Ziluetaren bilakaera. Neurrirako egokitzapenak eta forma berriak. Zilueta aldatzen duten betegarriak eta egiturak. - Aro modernoko ikuskizunetarako janzkera. - Zilueta-aldaketa. Egiturak eta betegarriak. Kulturen eta horien eragin-esparruen arabera berezitasunak. - Patroigintzako liburuak. Antzerkiko jantziak. - Aro garaikideko ikuskizunetarako janzkera. - Janzkera-aldaketak: frantziar iraultzatik 1900. urtera arte. XX. mendea eta ziluetaren aldaketa azkarrak. - Janzkera gaur egungo ikuskizunetan. Etorkizuneko balizko joerak. - Jantziaren kontzeptua. Janzkera osatzen duten jantzien ezaugarriak. - Kanpoko jantziak, barrukoak eta osagarriak: aniztasuna eta ezaugarriak. - Janzkeren osagarriak: mahukak, lepoak, ebakiak, tolesak, parpailak eta diseinu baten proportzioa alda dezaketen beste batzuk. - Ikuskizunetako gaur egungo janzkera osatzen duten elementuak.
jarrerazkoak	- Informatuta egon beharra balioestea eta informazioa bilatzeko interesa izatea. - Autonomiaz jardutea jarduerak egitean. - Eguneratuta egoteko interesa izatea.

3. EHUNGINTZAREN, JANTZIGINTZAREN ETA LARRUGINTZAREN SEKTOREKO HISTORIAREN BILAKAERA DESKRIBATZEA

prozedurazkoak	- Gremioen bilakaera eta lanbidearen aldaketak deskribatzea. Modernizazioa. - Jantzigintzaren transformazioa eta eguneratzea ezagutzea, baita, materialena eta akaberena eta ukitu pertsonalizatuena, eskukoak eta artisauak. - Material berriak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	- Gremioak. Joskinaren lanbidea historian. Diseinatzailearen irudia. - Azken mendeetako artisau-lantegiak. Artisan-kalitatea. - Moda-etxeak. Goi-jostura. <i>Prêt-à-porter</i>. Neurrirako jantziak. - Janzkeraren bilakaera eta aurrerapen teknologikoak. - Industria-iraultza. - Josteko makinaren agerpena eta horren ondorioak. - Teknologia berrien aurrerapena. Teknologia berriak: gaur egungo eta etorkizuneko janzkeraren modan eragina duten makinak eta

	lanabesak. - Material berrien eragina.
jarrerazkoak	- Informatuta egon beharra balioestea eta informazioa bilatzeko interesa izatea. - Autonomiaz jardutea jarduerak egitean. - Eguneratuta egoteko interesa izatea.

4. MODAREN JOERAK IDENTIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Garai bateko joera artistikoak ezagutzea. - Joerak bilatzeko sistemak erabiltzea. - Moda eta diseinatzaileak aztertzea. - Materialak joeren arabera elkartzea. - Populazio-segmentuen arabera sortzea joerak: haurrak, gizonezkoak eta emakumezkoak. - Estiloa identifikatzea eta zehaztea. - Janzkerako terminologia tekniko aplikatzea. - Joerei eta koloreei buruzko txostenak egitea.
kontzeptuzkoak	- Gertakari politiko eta artistikoek janzkeran duten eragina. - Joera klasikoak: udaberria/uda eta udazkena/negua. - Joera eta egile bereko diseinuen arteko bat-etortzeak. - Janzkeran aplikatutako terminologia tekniko. - Marken irudia. - Erakusketa monografikoak. - Moda-azokak. - Desfileak modako ibiltokietan. - Aldizkari teknikoak. - Modaren hedabideak.
jarrerazkoak	- Informatuta egon beharra balioestea eta informazioa bilatzeko interesa izatea. - Autonomiaz jardutea jarduerak egitean. - Eguneratuta egoteko interesa izatea.

5. INFORMAZIOA TEKNIKOA EGUNERATZEA

prozedurazkoak	- Informazio-iturriak aztertzea. Motak eta erabilerak. - Hautatutako informazioaren artxiboak antolatzea eta eguneratzea. - Txostenak idaztea eta lortzea. - Euskarriak sailkatzea eta artxibatzea: fisikoa eta digitala.
kontzeptuzkoak	- Informazio-iturri tradizionalak. Informazio-fluxuak antolatzea. - Informatika aplikatua: Internet, informazio-bilatzzaileak. Datu-baseak. Informazioaren artxiboa. Komunikazio-teknikak. - Dokumentazio teknikoak.
jarrerazkoak	- Informatuta egon beharra balioestea eta informazioa bilatzeko interesa izatea. - Autonomiaz jardutea jarduerak egitean. - Teknologia berrietan eguneratuta egoteko interesa izatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu honetan biltzen den prestakuntza goi-mailako teknikari honek bete ditzakeen funtzioetan aplikatzen da.

Irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honetan ikasleak goi-mailako teknikari honek bete ditzakeen funtzioetan prestatzen direnez gero, janzkera klasikoa eta gaur egungoa osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatzearekin hastea gomendatzen da. Materialak, formak eta giza gorputzarekiko proportzioak aztertuko dira, baita zer testuingurutan erabiltzen ziren eta diren ere.

Historian gaur egunera arte janzkerako jantziak eta osagarriak identifikatu ostean, eszenako janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatu eta ezagutu beharko dira –hauek ere gaur egunera arte–. Materialak, formak eta giza gorputzarekiko proportzioak aztertuko dira, baita zer testuingurutan erabiltzen ziren eta diren ere.

Janzkeraren, oro har, jantziak eta osagarriak identifikatu eta ezagutu ostean, eta, zehazki, neurrirako eta ikuskizunetarako jantziak eta osagarriak identifikatu eta ezagutu ondoren, ehungintzaren, jantzigintzaren eta larrugintzaren sektoreak historian izan duen bilakaera jorratuko da, eta joskinaren lanbidean izan dituen inplikazioak aztertuko dira, bai gremioen modernizazioari dagokionez, bai aurrerapen teknologikoen, ehungintzaren eta jantzigintzaren bilakaerari dagokionez.

Bestalde, garrantzi handikoa izango da modaren joera historikoak eta gaur egungoak identifikatzea eta aztertzea, zuzentzen zaion populazio-sektoreari eta dagokion denboraldiari buruzko informazioa baloratuta.

Azkenik, jakin behar da sektore honetako profesionalak jantziei eta osagarriei buruzko informazio teknikoak eguneratu beharko duela eta, horretarako, informazio-iturriak identifikatu beharko dituela –tradizionalak zein informatikoak– eta eduki adierazgarriak hautatu beharko dituela.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan kontzeptuzko edukiek karga handia dute, eta ikasleek jantzien eta osagarrien ikerketa historikoaren eta garaikidearen garrantziaz jabetu beharko dute. Prozedurazko zatia kontzeptuzkoarekin batera landuko da, aurretiazko ikerketan lortutako informazioa erabilita.

Historian janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatzeko jarduerak proposatzen dira. Joerak aztertuko dira, eta zibilizazio bakoitzaren testuinguru sozio-politikoak, ekonomikoak, artistikoak eta kulturalak eta garatu diren garaiak modan duten eta izan duten eragina hartuko da aintzat.

Era berean, historian eta gaur egun eszenako janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak ezagutzeko jarduerak proposatzen dira. Zibilizazio bakoitzaren testuinguru sozio-politikoak, ekonomikoak, artistikoak eta kulturalak eta garatu diren garaiak ikuskizunetako janzkeran duten eta izan duten eragina hartuko da aintzat. Ikasleek

txostenak egin beharko dituzte eta, horrela, esparru horretan lortu dituzten ezagutzak ebaluatu ahal izango ditu irakasleak.

Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako sektorearen historian izandako bilakaera ezagutzeko ikerketa sustatu beharko da, joskinaren lanbidean izan dituen inplikazioak aztertuta.

Modaren joerak identifikatzea eta helburu duen biztanleria-sektorearekin eta kontuan hartutako denboraldiarekin lotutako informazio garrantzitsua balioestea modulu honen alderdi saihestezina izango da. Atal horretan, informatuta eta eguneratuta egotearen garrantzia nabarmendu beharko da.

Ikasleei ulertaraziko zaie garrantzi handikoa dela jantziei eta osagarriei buruzko informazio teknikoak eguneratuta edukitzea, informazio-iturriak identifikatuta eta erabilia eta edukirik adierazgarrienak hautatuta.

Beti da interesgarria moduluen eduki orokorrak biltzen dituzten ariketa praktikoak proposatzea eta, hala, eskuratutako ezagutzak argiago ebaluatu ahal izatea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Historian janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatzea:
 - Janzkeraren eta bere bilakaeraren ezaugarriak identifikatzea.
 - Gizateriaren historian janzkeran eragina duten faktoreak ezagutzea: teknikak eta materialak, erabilerak eta ohiturak.
 - Emakumezko eta gizonezko irudiak aztertzea eta interpretatzea.
 - Jantziak eta osagarriak ezaugarritzea. Proportzioak.
 - Jantzi baten osaera finkatzea. Osagaiak, formak eta bolumenak.
 - Gaur egungo modako diseinuak aztertzea, baita goi-mailako joskintza eta *prêt-à-porter* ere.
- ✓ Eszenako janzkera osatzen duten jantziak eta osagarriak identifikatzea:
 - Modeloak eta osagarriak erabileraren, ohituen eta xedearen arabera sailkatzea.
 - Modeloa konformatzea.
 - Janzkera osatzen duten jantziak identifikatzea.
 - Jantziak eta horiek osatzen dituzten osagarriak ezagutzea.
 - Ikuskizunetako janzkera osatzen duten elementuak deskribatzea.
 - Txostenak egitea.
- ✓ Ehungintzaren, jantzigintzaren eta larrugintzaren sektoreko historiaren bilakaera deskribatzea:
 - Gremioen bilakaera eta lanbidearen aldaketak deskribatzea. Modernizazioa.
 - Jantzigintzaren transformazioa eta eguneratzea ezagutzea, baita, materialena eta akaberena eta ukitu pertsonalizatuena, eskukoak eta artisauak.
 - Material berriak identifikatzea.
- ✓ Modaren joerak identifikatzea:
 - Garai bateko joera artistikoak ezagutzea.
 - Joerak bilatzeko sistemak erabiltzea.
 - Moda eta diseinatzaileak aztertzea.
 - Materialak joeren arabera elkartzeko.
 - Populazio-segmentuen arabera sortzea joerak: haurrak, gizonezkoak eta emakumezkoak.
 - Estiloa identifikatzea eta zehaztea.
 - Janzkerako terminologia teknikoak aplikatzea.

- Joerei eta koloreei buruzko txostenak egitea.
- ✓ Informazioa teknika eguneratzea:
 - Informazio-iturriak aztertzea. Motak eta erabilerak.
 - Hautatutako informazioaren artxiboak antolatzea eta eguneratzea.
 - Txostenak idaztea eta lortzea.
 - Euskarriak sailkatzea eta artxibatzea: fisikoa eta digitala.

7

7. lanbide-modulua

NEURRIKO JANTZIAK DISEINATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Neurriko jantziak diseinatzea
Kodea:	0590
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	140 ordu
Kurtoa:	2.a
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0912_3: Ehungintzan eta larrugintzan diseinua aztertu eta interpretatzea, eta produktua zehazten laguntzea.
Helburu orokorrak:	2.a / 16.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Modaren joerak interpretatzen ditu, irizpide teknikoak eta estetikoak ezarrita, neurrirako eta ikuskizunetarako jantzien diseinurako.

Ebaluazio-irizpideak:

- Modaren joerei buruzko informazio-iturriak hautatu ditu.
- Modaren joerak interpretatu ditu, irizpide kulturalen, soziologikoen eta ekonomikoen arabera.
- Diseinatu beharreko jantziek bete beharreko ezaugarri funtzionalak, estetikoak eta teknikoak deskribatu ditu, ereduazko bezeroen beharren arabera.
- Giza gorputzaren eta mugimenduen ergometria aztertu du, moten eta tailuen arabera.
- Diseinu bihurtzeko zirriborro baliagarrietan transformatu du informazioa.
- Joeren arabera kolore, ehundura eta materialen karta eguneratua lortu du.
- Sortutako informazioa informatika-euskarrian artxibatu du.

2. Material berritzaileak hautatzen ditu, gaur egun dauden diseinuak hobetuz eta produktuak edo prozesuak optimizatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektoreko ehun-material berriei buruzko informazio baliagarria lortu du.
- b) I+G+b ekimenaren bidez, produktu berriak proposatu ditu, zaharrak optimizatuta.
- c) Sektoreko material berritzaileak hautatu ditu, merkatuko segmentuaren beharren arabera.
- d) Aurretiazko diseinuetan hobekuntzak aplikatu ditu, material berriak abiapuntu izanik.
- e) Informazio teknikoa eta artistikoa sistematikoki eguneratzeko sistemak dokumentatu ditu.

3. Diseinu teknikoak egiten ditu, kolore-kartak aplikatuta, baita ehunen eta beste material batzuen laginak ere.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Diseinuak egiteko tresna, euskarri eta formatu egokienak hautatu ditu.
- b) Modaren joeren eta bezeroaren beharren arabera egin ditu diseinuak.
- c) Koloreak eta ehundurak harmonikoki interpretatu eta nahastu ditu.
- d) Ñabarduren, tonalitateen eta ehunduren laginak lortu ditu, modaren joeren koloreak abiapuntu izanik, materialen gainean efektuak lortzeko.
- e) Diseinuen zehaztapen teknikoak zehaztu ditu.
- f) Zehaztapenak txertatu ditu, ondoren egiteko.

4. Programa informatikoen eta prozedura tradizionalen bidez diseinatzen ditu zirriborroak, eta efektu birtuala ahalik eta gehien doitzen du xehetasunik zehatz eta errealerenera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziak diseinatzeko berariazko softwarearen bidez egin ditu diseinuak.
- b) Jantziak diseinatzeko prozedura tradizionalen bidez egin ditu diseinuak.
- c) Software egokiaren bidez erreproduzitu ditu materialak.
- d) Software egokiaren bidez erreproduzitu ditu akaberak.
- e) Diseinu lauak egin ditu, neurrirako jantzigintzaren zehaztapenekin.
- f) 3Dko simulazio-programekin egiaztatu ditu diseinuak.

5. Jantziak egiteko prozesu egokiak zehazten ditu, eta horien bideragarritasun ekonomikoa aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziak egiteko beharrezko materialak zehaztu ditu.
- b) Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak zenbatetsi ditu.
- c) Jantziak egiteko prozedura hautatu du.
- d) Prozesuaren faseak ezarri ditu.
- e) Jantziak egiteko tresneriaren beharrezko doikuntzak ezarri ditu.
- f) Jatorrizko diseinuarekiko egokitzapena, erabilerarekiko egokitzapena eta fidagarritasuna baloratu du.
- g) Erreduzko bezeroen beharren arabera balioetsi du diseinua.

h) Jatorrizko ereduaren aldaketak eta/edo zuzenketak egin ditu.

c) Oinarrizko edukiak

1. MODAREN JOERAK INTERPRETATZEA	
prozedurazkoak	- Diseinuak modaren eta joeren arabera egitea. - Ezaugarri funtzionalak aplikatzea: estetikoak eta teknikoak. - Giza gorputzaren eta mugimenduen zirriborroak egitea, gorpuzkeren eta tailuen arabera. - Arte eszenikoetako eta ikuskizunetako jantziarako diseinuak egitea. - Ehungintzako eta larrugintzako gaiak diseinatzea. - Diseinuetan formak, bolumenak, egiturak eta betegarriak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Ezaugarri funtzionalak: estetikoak eta teknikoak. - Neurrirako eta ikuskizunetarako jantziak diseinatzeko irizpide estetikoak eta teknikoak. Prozesuaren proiektua eta produkzioa. - Diseinua zehazten duten elementuak: ehungintzako eta larrugintzako gaiak diseinatzeko irizpideak. - Ehungintzako eta larrugintzako gaiak diseinatzeko irizpideak. - Giza gorputzaren eta mugimenduen ergometria. - Tailuak. - Moda-kalitate-prezio erlazioa. - Arte eszenikoetako eta ikuskizunetako jantziak. - Ehungintzako eta larrugintzako gaiak diseinatzeko irizpideak. - Osagaien bilakaera. Formak, bolumenak, egiturak eta betegarriak. - Zilueta-aldaketak.
jarrerazkoak	- Moda eta joerak ezagutzeko interesa izatea. - Forma eta diseinu berriak ikertzeko interesa izatea. - Informatuta egotearen beharra balioestea.

2. MATERIAL BERRITZAILEAK HAUTATZEA	
prozedurazkoak	- Ehunak, larruak eta materialak diseinuetara egokitzea (kalitateak, ehundurak, formak, koloreak eta osagarriak). - Berritasuna eta orijinaltasuna aplikatzea. - Materialak ikertzea, baita prozesu teknikoan, produkzio-prozesuen eta merkatuen iraunkortasuna ere. - Diseinuaren hobekuntza- eta kalitate-sistemak aplikatzea. - Informazio teknikoko eta artistikoko bideetan bilatzea informazioa.
kontzeptuzkoak	- Ehunak, larruak eta materialak hautatzeko irizpideak: kalitateak, ehundurak, formak, koloreak eta apaindurak. - Materialen, ehunduren, estanzazioaren, koloreen eta akaberen kalitateak. - Materialen formak, konposizioa, egokitzapena eta hornidurak. - Materialak berritzeko produktuak eta prozesuak. - Diseinuaren hobekuntza- eta kalitate-sistemak. Prozesua dokumentatzea. - Informazio teknikoko eta artistikoko bideak.
jarrerazkoak	- Aplikazio eta egoera berrien aurrean material mota jakin baten

	erreakzioak, portaerak eta ezaugarriak ezagutzeko jakin-mina. - Materialen aplikazio berriak bilatzeko ekimena. - Diseinuak egiteko material plastikoak ezagutzeko jakin-mina. - Erabilitako materialen ezaugarriak ezagututa eta haiek eman ditzaketen propietateak zein diren jakinda, azken diseinuaren emaitza hobetzeko interesa.
--	---

3. DISEINU TEKNIKOAK EGITEA

prozedurazkoak	- Jantzigintza-proiektuak lantzea, diseinuak egitea eta sormen-prozesua egitea. - Diseinuak egiteko, material eta erreminta tradizionalak eta informatikoak erabiltzea. - Diseinuen bideragarritasuna ebaluatzea. - Jantzien osagaiak identifikatzea. Zatikatzea, egitura eta betegarriak. - Neurrirako jantzien diseinura aplikatutako irudikapen grafikoa. - Kolore-karta eta laginak kudeatzea. - Diseinuak egiteko zehaztapen teknikoak aplikatzea. - Informazio artistikoa, teknikoa eta plangintzakoa antolatzea.
kontzeptuzkoak	- Jantzi-proiektuak, diseinuak. Sormen-prozesuak. - Diseinuak egiteko materialak, erremintak eta tresnak. Tradizionalak eta informatikoak. - Diseinuen bideragarritasuna. Bideragarritasun teknikoa: balorazio-metodoak eta -irizpideak. - Bideragarritasun ekonomikoa eta komertziala: balorazio-metodoak eta -irizpideak. - Jantzien osagaiak. Zatikatzea, egitura eta betegarriak. - Kolore sortak. - Diseinuak egiteko zehaztapen teknikoak.
jarrerazkoak	- Zehaztasunez erabiltzea fitxa teknikoak eta aplikatzea arauak eta sinbologia. - Forma eta diseinu berriak ikertzeko interesa izatea. - Informatuta egon beharra balioestea eta konponbideak bilatzeko interesa izatea.

4. ZIRRIBORROAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	- Giza forma aztertzea. Diseinua zatikatzea. - Zirriborroak planifikatzea. Jantziak lauan marrazteko teknikak. Zehaztapen teknikoak. - Neurrirako jantziak diseinatzean erabiltzen diren teknika eta erreminta tradizionalak aplikatzea. Jantzi-marrazkiak, artxiiboak, eskakizun artistikoak eta teknikoak. - Neurrirako jantziak diseinatzeko softwarea erabiltzea. Ehungintzako berariazko programak. - 3Dko diseinuko simulazio-programak erabiltzea. - Artxibo digitalak lantzea eta kudeatzea. - Ehungintzako eta larrugintzako gaien diseinuan aldaketak egitea. - Proiektuaren bideragarritasunari buruzko ebaluazioa egitea. Baliabideak eta sormen-prozesuak. - Ereduzko gaiak diseinatzea, horien aldaerekin.
----------------	--

kontzeptuzkoak	- Giza irudia. - Neurrirako jantziak diseinatzean erabiltzen diren teknika eta erreminta tradizionalak. - Neurrirako jantziak diseinatzeko softwarea. - 3Dko diseinuko simulazio-programak. - Artxibo digitalak. - Proiektuaren bideragarritasuna, baliabideak eta sormen-prozesuak.
jarrerazkoak	- Erabilitako materialen ezaugarriak ezagututa eta haiek eman ditzaketen propietateak zein diren jakinda, azken diseinuaren emaitza hobetzeko interesa izatea. - Ordena- eta zehaztasun-irizpideei jarraituz, zereginak erabateko autonomiaz eta erantzukizunaz egiteko ekimena izatea. - Koloreak, ehundurak eta motiboak behatzeko interesa izatea.

5. JANTZIAK EGITEKO PROZESUAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	- Jantziak diseinatzean eta egitean kalitatea aplikatzea. - Zein merkaturi zuzentzen zaion identifikatzea. - Prozesua aztertzea. Eragiketen diagramak, eskemak eta zerrendak egitea. - Lanaren zehaztapen teknikoak erabiltzea. - Puntaden eta josturen irudikapen grafikoa egitea. - Dokumentazio teknikoa lantzea. - Sortutako dokumentazioa artxibatzea.
kontzeptuzkoak	- Kalitatea jantziak diseinatzean eta egitean. Prozesuaren aukeraketa. Ezarritako kalitate-kontrolak. - Lanaren zehaztapen teknikoak. - Puntaden eta josturen araudia. Irudikapen grafikoa. - Dokumentazio teknikoa.
jarrerazkoak	- Zehaztasunez erabiltzea fitxa teknikoak eta aplikatzea arauak eta sinbologia. - Lana garatzean kalitatearekiko konpromisoa izatea. - Une oro egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek neurrirako eta ikuskizunetarako jantziak diseinatzeko funtzioa betetzeko beharrezko prestakuntza eskaintzen du. Horretarako, modaren joerei erreparatuko zaie, zirriborroak egingo dira eta jantzigintza-prozesua zehaztuko da, beharrezko kostu- eta kalitate-baldintzetan.

Irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Modulu honek neurrirako jantziak diseinatzeko beharrezko prestakuntza eskaintzen duenez gero, hasteko, modaren joerak interpretatzea proposatzen da. Zeregin horretan, lehen kurtsoko **“Moda eta jantzeko joerak”** moduluan eskuratutako ezagutzak erabiliko

dira jantzien diseinua definitzeko eta lantzeko, betiere modaren estiloei eta joerei buruzko analisiak kontuan izanik.

Ondoren, jantzia definituko da, hautatutako azken diseinura eramango duten zirriborroen bidez, erreminta konbentzionalen bidez edo berariazko programa informatikoak erabiliz.

Zirriborroekin batera, ehunak hautatu ahal izango dira –diseinua bera hautatzea bezain garrantzitsua izango da–. Prozesu horretan orijinaltasunak duen garrantzia ez ezik, ehun berriak diseinuetara egokitzeak duen garrantzia ere hartu beharko da aintzat.

Egin beharreko jantzia, diseinua eta materialak definitu ostean, proiektua landuko da. Proiektuan argi eta garbi islatu beharko dira parte hartzen duten prozesu guztiak.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honek batez ere prozedurazko karga duenez gero, ikasleak trebatu egin beharko dira lan pertsonalaren garrantzian, ikerketa-lanean eta marrazketa eta diseinuko tekniken ikaskuntzan, betiere lana eragimenez egin ahal izateko.

Egindako diseinuen zirriborroetan, modaren joerak interpretatuko dira eta irizpide teknikoak eta estetikoak ezarriko dira horietan. Agerian geratuko da ikasleek lan bakoitzean planteatzen diren arazoak ebazteko duten gaitasuna.

Diseinura egokitutako material berritzaileen hautespena ere gainerakoez bereizteko behar besteko eraginkortasunez ebatzi beharko da, gaur egun dauden diseinuak hobetuz eta prozedurak edo produktuak hobetuz.

Jantzi-proiektuak egingo dira, eta, horietan, diseinuak eta sormen-prozesuak esleituko dira. Material eta erreminta tradizionalak eta informatikoak erabiliko dira, eta kolore-kartak eta ehunen laginak aplikatuko dira.

Puntu horretan, diseinuaren bideragarritasuna ebaluatuko da, dagozkion zehaztapenak aintzat hartuta.

Programa informatikoen eta prozedura tradizionalen bidez diseinatuko dira zirriborroak, eta efektu birtuala ahalik eta gehien doituko da xehetasunik zehatz eta errealerenera.

Modulu honetan, beharrezkoa izango da jantziak egiteko prozesu egokiak zehaztea, eta horien bideragarritasun ekonomikoa, estetika eta erabilera aztertzea.

Moduluari amaiera ematean, lan osoak egitea sustatu beharko da. Lan horietan, ikasleek jarduera bakoitza egiteko duten autonomia eta orijinaltasuna ebaluatu ahal izango da, betiere gaineratutako datuak abiapuntu izanik.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Modaren joerak interpretatzea:
 - Diseinuak modaren eta joeren arabera egitea.
 - Ezaugarri funtzionalak aplikatzea: estetikoak eta teknikoak.
 - Giza gorputzaren eta mugimenduen zirriborroak egitea, gorpuzkeren eta tailuen arabera.
 - Arte eszenikoetako eta ikuskizunetako jantziatarako diseinuak egitea.
 - Ehungintzako eta larrugintzako gaiak diseinatzea.
 - Diseinuetan formak, bolumenak, egiturak eta betegarriak aplikatzea.
- ✓ Material berritzaileak hautatzea:

- Ehunak, larruak eta materialen aukeraketa egokitzea: diseinuen kalitateak, ehundurak, formak, koloreak eta apaindurak.
 - Berritasuna eta orijinaltasuna aplikatzea.
 - Materialak ikertzea, baita prozesu teknikoan, produkzio-prozesuen eta merkatuen iraunkortasuna ere.
 - Diseinuaren hobekuntza- eta kalitate-sistemak aplikatzea.
 - Informazioa informazio tekniko eta artistikoko bideetan bilatzea.
- ✓ Diseinu teknikoak egitea:
- Jantzigintza-proiektuak lantzea, diseinuak egitea eta sormen-prozesua egitea.
 - Diseinuak egiteko, material eta erreminta tradizionalak eta informatikoak erabiltzea.
 - Diseinuen bideragarritasuna ebaluatzea.
 - Jantzien osagaiak identifikatzea. Zatikatzea, egitura eta betegarriak.
 - Neurrirako jantzien diseinura aplikatutako irudikapen grafikoa egitea.
 - Kolore-karta eta laginak kudeatzea.
 - Diseinuak egiteko zehaztapen teknikoak aplikatzea.
 - Informazio artistikoa, tekniko eta plangintzakoa antolatzea.
- ✓ Zirriborroak diseinatzea:
- Giza forma aztertzea. Diseinua zatikatzea.
 - Zirriborroak planifikatzea. Jantziak lauan marrazteko teknikak. Zehaztapen teknikoak.
 - Neurrirako jantziak diseinatzean erabiltzen diren teknika eta erreminta tradizionalak aplikatzea. Jantzi-marrazkiak, artxiboak, eskakizun artistikoak eta teknikoak.
 - Neurrirako jantziak diseinatzeko softwarea erabiltzea. Ehungintzako berariazko programak.
 - 3Dko diseinuko simulazio-programak erabiltzea.
 - Artxibo digitalak lantzea eta kudeatzea.
 - Ehungintzako eta larrugintzako gaien diseinuan aldaketak egitea.
 - Proiektuaren bideragarritasunari buruzko ebaluazioa egitea. Baliabideak eta sormen-prozesuak.
 - Ereduzko gaien diseinua, horien aldaerekin.
- ✓ Jantziak egiteko prozesuak zehaztea:
- Jantziak diseinatzean eta egitean kalitatea aplikatzea.
 - Zein merkaturi zuzentzen zaion identifikatzea.
 - Prozesua aztertzea. Eragiketen diagramak, eskemak eta zerrendak egitea.
 - Lanaren zehaztapen teknikoak erabiltzea.
 - Puntaden eta josturen irudikapen grafikoa egitea.
 - Dokumentazio tekniko lantzea.
 - Sortutako dokumentazioa artxibatzea.

8

8. lanbide-modulua

NEURRIKO JANTZIAK EGITEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Neurriko jantziak egitea
Kodea:	0591
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	264 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	17
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1516_3: Neurrirako jantziarako ebaketa, jantzigintza, proba eta akaberetako prozesuak gainbegiratzea eta egitea.
Helburu orokorrak:	9.a / 10.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Jostura-loturak egiten ditu hainbat materialekin, josteko eta itsasteko eskuko eta makinako teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebakitzeko eta josteko makinak eta tresneria prestatu ditu.
- b) Mihiztatu beharreko materialen arabera egokiak diren hariak hautatu ditu.
- c) Beharrezko erremintak edo tresnak hautatu eta deskribatu ditu.
- d) Behar bezala kokatu dira materialak, loturako josturak egiteko.
- e) Eskuz eta makinaz egin beharreko puntadak hautatu ditu.
- f) Osagaiak josteko eta itsasteko eragiketak egin ditu.

2. Modeloaren piezak lortzen ditu, luzatzeko, markatzeko eta ebakitzeko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Modeloaren dokumentazio teknikoari dagozkion patroiak aldatu ditu.
- b) Jantziaren ezaugarrien arabera luzatu ditu ehunak eta materialak.

- c) Piezak ehunaren gainean banatu ditu, markaketa optimizatuta.
- d) Modeloaren pieza guztiak lortu eta identifikatu ditu.
- e) Ebaketaren berriazko dokumentu teknikoa egin du.

3. Modeloaren proba manikiaren gainean egin du, gorputzaren erreferentziazko lineetara egokituta, diseinuaren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Materialetara egokitutako eskuz edo makinaz egiteko puntadak eta josturak hautatu ditu.
- b) Eskuz mihiztatzearen aurretiazko eragiketak egin ditu.
- c) Pieza nagusien mihiztaketa piezen dimentsioekin edo formekin bat datorrela egiaztatu du.
- d) Eskura dauden bigarren mailako elementuak prestatu ditu, beharrezkoa bada bigarren proba batean txertatzeko.
- e) Jantzia manikiaren gainean jartzean, ziluetara egokitzen dela egiaztatu du.
- f) Lanabes eta tresna egokiekin egin ditu jostura kentzeko eragiketak.
- g) Proban egindako aldaketa edo ekarpen berri guztiak behar bezala definitu ditu.
- h) Bigarren mailako elementu, osagarri eta apaindura guztien kokalekua markatu du.

4. Behin betiko modeloa egiten du, proban lortutako zuzenketekin eta doikuntzekin, desmuntatzeko, fintzeko eta mihiztatzeko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proba doitu ostean, modeloaren pieza guztiak findu eta gainjarri ditu.
- b) Modeloaren behin betiko mihiztaketaekin lotzen diren makinaren eta tresnerien beharra aztertu du.
- c) Modeloaren pieza guztiak mihiztatu ditu, jantziaren marken arabera.
- d) Bigarren proba bat egitearen beharra aztertu du, forruak eta arrehunak barnean hartuta, jantzia behar bezala doitzeko.
- e) Itxiera-sistemak, kremaileak eta apaingarriak barnean hartu edo aplikatu ditu.

5. Modeloa erakusten du, eta, horretarako, neurrirako jantzigintzako berezko akaberako, etiketatzeko eta aurkezteko prozesuak gauzatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egindako eragiketen ikus-kontrol baten bidez, jantziaren zuzentasuna eta kalitatea egiaztatu du.
- b) Jantzirako orkoi eta makina egokiak hautatu ditu, jantziaren akabera zuzenerako.
- c) Jantziaren materialen arabera doitu ditu lisatzearen parametroak.
- d) Azken kalitatea eskatzen den kalitatearekin bat datorrela egiaztatu du.
- e) Jantzia enbalatzeko eta bezeroari aurkezteko modua hautatu du.

c) Oinarrizko edukiak

1. JOSTURA LOTURAK EGITEA

prozedurazkoak	- Materialak paketatzeako makinak eta tresnak prestatzea. - Lanpostua antolatzea: ergonomia eta segurtasuna. - Ehun- eta larru-materialak prestatzea eta mihiztatzea. - Dokumentu teknikoa interpretatzea. - Ehunezko edo larruzko gaien akabera-eragiketak egitea. - Kalitate-kontrola aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Jantzigintzako makinak ehunezko eta larruzko jantzietarako. - Funtzioa eta eragiketak. Arraste motak eta klaseak. - Orratz motak eta klaseak. - Hari motak eta ezaugarriak. Aplikazioak. - Harien tentsioa. - Ehungintzako eta larrugintzako makinaren organo eragileak. - Jantziak egiteko makinaren segurtasun-sistemak. - Materialen ezaugarri teknikoak. - Puntadak eta josturak jantzigintza-prozesuan. - Eskuko puntadak. Makinako puntadak. Puntaden dentsitatea. - Lotura-josturak. Behin-behinekoak eta behin betikoak. Definizioa eta motak. - Jostura bereziak. Presillak eta botoi-zuloak. - Neurrirako jantzigintza-prozesuko eragiketak. - Makina osagarriak: motak eta aplikazioak.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna mihiztatzeako lanabesak eta makinak prestatu eta mantentzean. - Konpromisoa ergonomiarekin, segurtasunarekin eta kalitatearekin. - Informazio teknikoaren erabilera kritikoa.

2. MODELOAREN PIEZAK LORTZEA

prozedurazkoak	- Hainbat materialen ebaketa egitea. - Patroiaren piezen profilak trazatzea. Bat etortzearen puntuak. - Erremintak, pesak, euste-pintzak eta markatze-tresnak erabiltzea. - Tresnak hautatzea: marka-harria, larrurako lapitza eta abar. - Hainbat materialetako ebaketa konbentzionala egitea. - Markaketa zatikatzea: profilak berraztertzea. Piezak fintzea. - Moztutako osagaiak prestatzea. Identifikatzea eta etiketatzea. - Mihiztaketa aurreko tarteko eragiketak bereiztea. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea. - Paketatzea. Modeloa osatzen duten piezak taldekatzea. - Ebaketa-dokumentua egitea.
kontzeptuzkoak	- Ehunak eta larruak prestatzeako teknikak, ebaketak egitera begira. - Ebaketa-mahaiak. - Ehunak zabaltzeako eta kokatzeko teknikak. - Patroiak banatzeko irizpideak. Esku hartzen duten faktoreak. - Markaketa. - Markatzeko teknikak. Markatzearen optimizazioa eta errendimendua.

	- Ebaketa-sistemak. - Ebakitzeko makinak eta lanabesak. - Ebaketa-prozesuan esku hartzen duten parametroak. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
jarrerazkoak	- Markatzean, ehunaren zentzuzko aprobetxamenduarekin konpromisoa hartzea. - Parte-hartze aktiboa eta arduratsua izatea jardueretan. - Tresneria maneiatzean norberaren segurtasun-arauak betetzea.

3. MODELOAREN PROBA EGITEA

prozedurazkoak	- Gorputzaren erreferentziazko lineak identifikatzea: proportzioak, formak, zilueta. - Aplikazioak eskuz egitea. - Jantzia zuzen jartzea manikiaren edo pertsonaren gainean. - Egokitze teknika aplikatzea. - Probaren barruan, jostura kentzeko, eusteko eta markatzeko lanabesak erabiltzea. - Modeloaren doikuntza teknikoak eta artistikoak zehaztea. - Proba interpretatzea, kontrolatzea eta doikuntzak egiaztatzea. - Sortutako informazioaren artxiboa egitea.
kontzeptuzkoak	- Jantziak probarako prestatzeko eta muntatzeko prozesua. - Gorputzaren erreferentziazko lineak: proportzioak, formak, zilueta. - Modeloaren piezak lotzeko teknikak. - Beharrezko proben kopurua egiteko irizpideak. - Probaren barruan, jostura kentzeko, eusteko eta markatzeko lanabesak. - Probaren josturak kentzeko eta desmuntatzeko teknikak.
jarrerazkoak	- Behatu eta aztertze jarrera. - Doitasuna aplikazio teknikoetan. - Azken emaitza hobetzeko interesa.

4. BEHIN BETIKO MODELOA EGITEA

prozedurazkoak	- Zuzenketak eta markak egitea. - Proban sortutako markak pasatzea. - Beharrezko lanabesekin fintzea eta eramatea. - Lan-plana aplikatzea. - Jantziak eskuz egitea, makinaz egitea, itsastea, erreformatuak aplikatzea. - Makinak, tresneria eta erremintak prestatu eta doitzea. - Mihizatze-teknika egokia hautatzea eta aplikatzea. - Forruak eta apaindurak aplikatzea, jartzea. - Prozesuan ezarritako kalitate-kontrolak aplikatzea. - Hautemandako akatsak zuzentzea. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Mihizatzearen aurretiazko eta tarteko eragiketak. Definizioa.

	- Modeloak produktuaren arabera egiteko prozesua. - Eragiketen ordena eta sekuentzia. - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, doitasuna eta txukuntasuna zaintzea prozedurazko eragiketetan. - Analisi kritikoa egitea eta hobekuntzak bilatzea. - Segurtasun-arauak betetzea.

5. MODELOA ERAKUSTEA

prozedurazkoak	- Itxierak eta apaingurak aplikatzea. Eskuko edo makinako eragiketak. - Organo eragileen doikuntzak egitea. Lisatzearen parametroak. - Lisatzeko teknikak aplikatzea, ehunaren arabera. - Arriskuen prebentzioari buruzko arauak aplikatzea eta betetzea: jardun-protokoloak. - Jantzia aurkeztea.
kontzeptuzkoak	- Akaberarako irizpideak eta aplikazioak. Eragiketen prozesua eta sekuentzia. - Erabili beharreko bitarteko materialak eta lanabesak. - Grapatzeko, errematxatzeko, botoiak forratzeko, krisketak jartzeko makina osagarriak. - Ehunezko edo larruzko jantzien akabera-eragiketak. Barne- eta kanpo-akaberak, etiketak. - Ehunezko eta larruzko jantziak lisatzeko tresneria. - Lisatzeko osagarriak. Esquilak, besoak eta orkoiak. - Norbera babesteko tresneria. Ergonomia. - Jantziak kontserbatzeko eta mantentzeko jarraibideak.
jarrerazkoak	- Akabera-eragiketak aplikatzeko metodoa. - Ergonomiarekiko eta prebentzioarekiko konpromisoa. - Txukuntasuna azken emaitzan.

d) Orientabide metodologikoak

Lanbide-modulu honek neurrirako jantzigintzako jantziak egiteko funtzioa betetzeko beharrezkoa den prestakuntza jasotzen du.

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluaren edukiak neurrirako jantzigintzako prozesuaren faseen arabera antolatzea proposatzen da. Horrenbestez, dokumentazio teknikoaren interpretazioa abiapuntu izanik, makinak eta lanabesak prestatzeari ekingo zaio, mihiztatze-eragiketetan erabiltzeko egokitzearen. Era berean, mihiztatu beharreko piezak prestatu eta antolatu behar dira, beharrezko kalitate-prozesuari jarraituta.

Ondoren, ehuna markatzeko lanabes egokiak hautatuko dira, materialen behar teknikoen arabera, eta patroiaren forma profilatuko da eta markak eramango dira. Ebaketa

konbentzionala egin aurretik, pieza eta marka guztiak egiaztatu beharko dira. Moztutako osagaiak behar bezala seinaleztatu eta identifikatuko dira. Gero, paketatuko egingo dira modeloaren piezak.

Ebakitzeko prozesuaren ondoren, modelo manikiaren gainean probatzeko jantzia prestatu eta muntatuko da, betiere erreferentziazko lineak, proportzioak eta formak kontuan hartuta eta jantziaren kokapen zuzena aintzat hartuta. Modeloaren doikuntza teknikoak eta estetikoak zehaztuko dira eta egiaztatu egingo dira.

Beharrezkoa bada, zuzenketak eta markak egin ostean, jantziak egiteko makinak, lanabesak eta erremintak prestatuko dira. Mihiztatu beharreko jantziaren behar teknikoaren arabera hautatuko da mihizatze-prozedura –eskuz, makinaz edo itsatsita–. Jantziaren elementu nagusiak eta bigarren mailakoak (forruak, eta abar) egingo dira, eta apaindurak aplikatuko dira. Edonola ere, aintzat hartu beharko da bezeroari egingo zaion proban beharrezkoa izan daitekeela zuzenketak egitea. Prozesu osoan jarriko da ezarritako kalitate-parametroen gainean arreta.

Azkenik, jantzia behin betiko egin ondoren, itxiera-sistemak (botoiak, krisketak,...) eta apaindurak aplikatuko dira, beharrezko tresneria erabilita. Lisatzeko makinak eta osagarriak, berriz, materialen arabera hautatuko dira. Lisatzeko parametroak jantziaren behar teknikoetara egokituko dira. Azkenik, jantzia eman aurretik, eskatzen den kalitatea betetzen duela egiaztatuko da. Jantzia kontserbatzeko eta mantentzeko jarraibideak, bestalde, jantzia ematean bertan eskainiko dira.

Lanabesak eta erremintak maneiatzean, ez da inoiz ahaztu behar norberaren eta erabileraren segurtasun-arauak aplikatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honi ekin aurretik, komenigarria litzateke ikasleak prozesu osoan kokatzea, hau da, modulu osoaren eskema txiki bat egitea.

Hezkuntzaren esparruari dagokionez, ikaskuntza prozedura batzuen inguruan antolatzea proposatzen da. Prozedura horiei kontzeptuzko eduki eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte lortu nahi diren abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Modulu honek eskulangintzarekin lotutako prozedurazko eduki nabarmena du, eta bezeroen beharrei eta itzaropenei erantzutera bideratuta dago. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko komeni da jarduerak zenbaitetan errepikatzea, horietako bakoitzean hainbat jantzitan hainbat material erabilita; zailtasuna arian-arian areagotuta tekniketaren eboluzionatzea lortzeko.

Modulua amaitzean, eskuratutako ezagutzen eta trebetasunen benetako irismena erakutsi beharko da, kasu bakoitzaren berezitasunei eta ezarritako kalitatearen lorpenari erreparatuta.

Jardueren multzoak ikasleen autonomiaren bilakaera ahalbidetzen du eta, une oro, aplikatuko dira segurtasun-arauak.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jostura-loturak egitea:
 - Materialak paketatzeko makinak eta tresnak prestatzea.
 - Lanpostua antolatzea: ergonomia eta segurtasuna.

- Eskuko eta makinako puntadak eta josturak antzematea.
 - Hari eta orratz motak aplikatzea.
 - Ehun- eta larru-materialak prestatzea eta mihiztatzea.
 - Dokumentu teknikoa interpretatzea.
 - Ehunezko edo larruzko gaien akabera-eragiketak egitea.
 - Kalitate-kontrola aplikatzea.
- ✓ Modeloaren piezak lortzea:
- Hainbat materialen ebaketa egitea.
 - Patroien piezen profilak trazatzea. Lotura-puntuak.
 - Erremintak, pesak, euste-pintzak eta markatze-tresnak erabiltzea.
 - Hainbat materialetako ebaketa konbentzionala egitea.
 - Markaketa zatikatzea: profilak berraztertzea. Piezak fintzea.
 - Moztutako osagaiak prestatzea. Identifikatzea eta etiketatzea.
 - Mihiztaketaen aurreko tarteko eragiketak bereiztea.
 - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.
 - Paketatzea: modelo osatzen duten piezak taldekatzea.
 - Ebaketa-dokumentua egitea.
- ✓ Manikiaren gainean modeloaren proba egitea:
- Gorputzaren erreferentziazko lineak identifikatzea: proportzioak, formak, zilueta.
 - Aplikazioak eskuz egitea.
 - Jantzia zuzen jartzea manikiaren edo pertsonaren gainean.
 - Egokitze teknika aplikatzea.
 - Probaren barruan, jostura kentzeko, eusteko eta markatzeko lanabesak erabiltzea.
 - Modeloaren doikuntza teknikoak eta artistikoak zehaztea.
 - Proba interpretatzea, kontrolatzea eta doikuntzak egiaztatzea.
 - Sortutako informazioaren artxiboa egitea.
- ✓ Behin betiko modelo egitea:
- Zuzenketak eta markak egitea.
 - Proban sortutako markak pasatzea.
 - Beharrezko lanabesekin fintzea eta eramatea.
 - Lan-plana aplikatzea.
 - Jantziak eskuz egitea, makinaz egitea, itsastea, errefortzuak aplikatzea.
 - Makinak, tresneria eta erremintak prestatu eta doitzea.
 - Mihiztatze-teknika egokia hautatzea eta aplikatzea.
 - Forruak eta apaindurak aplikatzea, jartzea.
 - Prozesuan ezarritako kalitate-kontrolak aplikatzea.
 - Hautemandako akatsak zuzentzea.
 - Lanabesak maneiatzean, norberaren segurtasunari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.
- ✓ Modeloa erakustea:
- Itxierak eta apaindurak aplikatzea. Eskuko edo makinako eragiketak.
 - Organo eragileen doikuntzak egitea. Lisatzearen parametroak.
 - Lisatzeko teknika aplikatzea, ehunaren arabera.
 - Arriskuen prebentzioari buruzko arauak aplikatzea eta betetzea: jardun-protokoloak.
 - Jantziaren aurkezpena.

9. lanbide-modulua

NEURRIKO JANTZIEN ETA IKUSKIZUNETAKOEN PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Neurriko jantzien eta ikuskizunetako proiektua
Kodea:	0592
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzeko dituzten faseak barne hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien iritsiera identifikatu du.
- e) Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren implementazioa edo gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Proiektua ezartzeari datxekion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta tresneria definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatze prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitezkeen konponbidea ebaluatze prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoenean.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- Proiektua babestu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderai.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-ziklo osoan zehar landu diren konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneoak eta gaitasun osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen eginkizuna garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez "Lantokiko prestakuntza" moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria izango da tutoreak garatu ahal izango diren zenbait proiektu teknikoki bideragarri eskura izatea.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza.
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Azkenik, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta gauzatuko du, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako aurkezpen-teknikak erabiliko ditu.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren konpetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berariaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek problemak identifikatzera behartzen dute ikaslea, horiek konpontzeko hautabideak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek banako laneko uneak sustatzen dituzte, eta lan horiek garrantzi handikoak dira taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko.

Bestalde, talde-lanak harreman-konpetentziak garatzen ditu ikasleengan, eta taldeen funtzionamenduarekin eta ondoriozko guztiarekin ohitzen ditu ikasleak: talde-antolamenduarekin, rolen eta zereginen banaketarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, gatazken ebazpenarekin, eta abar.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen konpetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie (diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak eta abar lantzeko informatika-aplikazioak). Horretarako, proiektzio-kanoiak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte, etorkizunean lanaren jardunean erabilgarriak izango dituzten erremintekin ohitzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzeko garaian, garrantzitsutzat hartzen da proiektua azken produktu gisa ebaluatzea eta jarraitutako prestaketa-prozesua ere ebaluatzea, alderdi hauei buruzko informazioa jasota: lan-taldearen funtzionamendua, kide bakoitzak eginkizunean eta, oro har, proiektuan duen inplikazioa, taldearen baitan sortutako zailtasunak, ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia pertsonalak eta sozialak, etab.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- o Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- o Aurkezpena lagunduko duten baliabideen erabilera: informatika-baliabideak, ereduak, maketak, eta abar.
- o Azalpenaren argitasuna.
- o Azalpenaren antolamendua.
- o Azalpenaren bizitasuna.
- o Azalpenaren eraginkortasuna.
- o Erakutsitako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa...
- o Irakasle ebaluatzaileek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektua babestean. Horrela, norbanako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, komeni da produktua, prozesua eta proiektuaren azalpena ebaluatzean hautemandako puntu sendoak eta ahulak nabarmenduko dituen erantzun xehatua

ematea proiektuko talde bakoitzari. Horrela ikasleek erraz identifikatu ahal izango dituzte lan-jardunean egin eta azaldu beharreko beste proiektu batzuetan zer alderdi hobetu beharko duten.

10. lanbide-modulua INGELES TEKNIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarritzko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.

- i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze-edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- Sektoreko web-orri bateko oinarritzko informazioak identifikatu ditu.
- Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- Nork bere prestakuntza eta lanbide-konpetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen arabera Curriculum Vitae egin du.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- Beste herrialde batzuetako berezko balioak eta ohiturak identifikatu ditu, eta jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzeko.

c) Oinarritzko edukiak

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	- Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta

	zalantza adierazpena eta bestelakoak. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak. - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko terminologia espezifikoa. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-betea parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	- Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarritzko artikulak profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculum eta motibazio-gutuna.
kontzeptuzkoak	- Euskarri telematikoak: fax, e-mail, burofax, web-orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen eredua. - Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea

	errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.
--	--

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA	
prozedurazkoak	- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziorabial esanguratsuenak.
jarrerazkoak	- Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak baloratzea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarriko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten

egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak), eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezzen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikaturik dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehenetsunez ahozko hizkuntza erabiltzea lanbide-inguruneari dagozkion materialekin: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoa eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharra egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea txartel eragingarriarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarriketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	0620
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	17.a / 18.a / 19.a / 20.a / 24.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilaria lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneako arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarritzko edukiak

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA

prozedurazkoak | - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

	- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: ▪ Beharrek eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatze aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. - Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2. GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	- Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarriko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazkaren definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazka ebazteko edo deuseztatze metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.
jarrerazkoak	- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak	- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren arteztarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneo egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. - Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
jarrerazkoak	- Lana arautzearen beharra baloratzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneo gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako dagokienez. - Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak	- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuaren eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte

	Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	- Hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	- Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarritzko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarritzko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarritzko

	teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	- Larrialdien aurreikuspena baloratzea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betea parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- Lana bilatzea.
- Enpresan sartzeko eta egokitze aldia.
- Lanpostuan jardutea.
- Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.
- Lana bilatzea.

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- European lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitze aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitze aldian hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Segurtasun-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkartza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko konpetentziak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatze sistemak.

Lan-harremana amaitzeagatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatueta ordezkariek, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorian enplegatzeak aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.

- Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea.
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

12. lanbide-modulua

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0900
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a / 21.a / 23.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legeko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresa baten oinarritzko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarritzko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarritzko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.

- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarritzko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarritzko edukiak

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburu kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-idea lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	- Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.

2. ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	- Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.
	- Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-ariketak egitea.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

	- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	- Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektorako enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzekeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantzak, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazio- eta lege-izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA	
prozedurazkoak	- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarriko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen lege-izapideak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio- eta lege-izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Gainera, hainbat liburu edo artikulua irakurtzera bultzatzea dezake ikaslea, horien edukia kurtsoko proiektura egokitze aldera.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banakakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sectorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.

- Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
- Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak eta letrak, besteak beste.

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0901
Heziketa-zikloa:	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek lortutako produktuen produkzioarekin eta merkaturatzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduak enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- Enpresaren sare logistikoa osatzen duten elementuak identifikatu ditu: hornitzaileak, bezeroak, produkzio-sistemak, biltegiatzea eta bestelakoak.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.
 - Jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia eta abar) eta profesionalak (besteak beste, lanposturako beharrezko ordena, garbitasuna, segurtasuna eta erantzukizuna).
 - Jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzekoa den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
- f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia baloratu du, baita zereginen aldaketetara egokitzeko beharra ere.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Lan-jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako arauen eta jarraibideen arabera teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera prestatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuak prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako arauen eta jarraibideen arabera kontrol-prozedurak erabili ditu.
- d) Lan-jarduera garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
- e) Lan-jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
- f) Zerbitzuaren hartzaileen beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
- g) Pertsona erabiltzaileekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabiltzaile eta teknikak aplikatuta, ezarritako argibideen eta/edo arauen arabera.
- h) Lan-jarduera prestatzeko prozesuan sortu diren zailtasunak identifikatu ditu.

- i) Jarduera prestatzeko jarduera guztiak egin ditu, erabiltzaileen intimitate pertsonala errespetatzeko printzipioak kontuan hartuta.

4. Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak garatzen ditu, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzen ditu ezarritako arauak eta jarraibideak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
- d) Lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egin ditu lan-jarduera guztiak.
- e) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentziasuna errespetatu du.
- f) Erabiltzaile, egoera edo zeregin motaren arabera jarrera egokiak erabili ditu.
- g) Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabili ditu.
- h) Baliabide teknikoen erabileran ezarritako prozedurei jarraitu die.
- i) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen beharrekina lotu ditu.

5. Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Legezko araudiarekin eta enpresaren beraren berariazko araudiarekin lotzen diren nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak ezagutu ditu.
- b) Higiene- eta osasun-arazoak edo segurtasun-arazoak eragin ditzaketen portaera edo jarrera guztiak ezagutu ditu.
- c) Jarduerarako arropa egokia erabili du.
- d) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko tresneria.
- e) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- f) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- g) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6. Egindako produktua aztertzen du, eta bere gain hartutako edo sektorean ezarritako kalitate-irizpideekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratu du.
- b) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.
- d) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.
- e) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
- f) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresa-egitura eta -antolamendua identifikatzea:
 - Ehungintzaren eta modaren sektoreko enpresa-egitura eta -antolamendua.
 - Enpresaren jardura eta ehungintzaren eta modaren sektorean duen kokapena.
 - Enpresaren organigrama. Sailen arteko erlazio funtzionala.
 - Enpresaren organigrama logistikoa. Hornitzaileak, bezeroak eta merkaturatze-bideak.
 - Enpresaren esparruko lan-prozedurak. Laneko sistemak eta metodoak.
 - Enpresako giza baliabideak: lanpostuekin lotutako prestakuntza-baldintzak eta konpetentzia profesional, pertsonal eta sozialei dagozkienak.
 - Lantokian ezarritako kalitate-sistema.
 - Lantokian ezarritako segurtasun-sistema.
- ✓ Ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea:
 - Jarrera pertsonalak: enpatia, puntualtasuna.
 - Jarrera profesionalak: txukuntasuna, garbitasuna, erantzukizuna eta segurtasuna.
 - Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioaren aurreko jarrerak.
 - Hierarkia enpresan. Lan-taldearekiko komunikazioa.
 - Lanbide-jardueraren dokumentazioa: sailkatzeko, kodetzeko, berritzeko eta ezabatzeko metodoak.
 - Enpresaren barne-arauak, laneko jarraibideak, prozedura normalizatuak eta bestelakoak aintzat hartu eta aplikatzea.
- ✓ Lan-jardura prestatzeko eragiketak egitea:
 - Proposatutako gaia aztertzea eta identifikatzea, jasotako jarraibideak interpretatuta.
 - Prozesuaren interpretazio teknikoak, hura definitzen duten parametroak eta zehaztapenak kontuan hartuta.
 - Lan-jarduerari hasiera emateko irizpideak aplikatzea, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
 - Lan-sekuentziaren identifikazioa eta deskribapen teknikoak.
 - Jantzia edo gaia egiteko beharrezko baliabideak eta bitartekoak zehaztea, lan-jardura zer espaziotan egingo den kontuan hartuta.
 - Neurrirako proiektuen aurrekontuak egitea, modeloa egitean esku hartzen duten kontu-sailak zehaztuta.
 - Produkzio-prozesuen, materialen fluxuaren, kanpoko eta barneko garraioaren, eta abarren antolamendu eta kudeaketa teknikoak, erabilitako baliabideak optimizatzeke eta aurreikusitako emate-epeak betetzeko.
 - Protokoloak betetzea, zerbitzua zuzenduko zaien pertsonen beharrak kontuan hartuta.
 - Prozesua kudeatzen duen dokumentazio zehatza lantzea eta kudeatzea.
- ✓ Lan-planean aurreikusten diren jarduerak egitea:
 - Lan-jardura egiteko jasotako jarraibideak interpretatzea.
 - Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatzea, ezarritako prozedurei jarraituta.
 - Prozesuan esku hartzen duten material eta produktu osagarrien ezaugarriak identifikatzea eta azterketa egitea.
 - Prototipoa egiteko beharrezko makinak, erremintak eta tresnak doitzea (makinak albainutzea, orratza eta hariaren lodiera hautatzea eta egiaztatzea, puntada mota egiaztatzea, lisatzearen parametroak finkatzea, eta abar).

- Hautatuko teknikak zerbitzuaren erabiltzaileen beharrekin edo proposamenekin lotzea.
 - Modeloa (prototipoa), edo horren zati bat, egitea, zehaztapen teknikoaren arabera.
 - Modeloak produzitzeko aplikatuko diren prozeduren arauak aplikatzea.
 - Jantzia, piezak edo gaiak berraztertzea, eskatzen diren kalitate-parametroen arabera.
 - Patroiaren doikuntza egiaztatzea, jantzia egiteko prozesuan.
 - Produktu fabrikatuen ezaugarriak egiaztatzea, baita akatsen eta horiek eragiten dituzten kausen arteko lotura ere.
 - Lanaren emaitzei dagokien beharrezko dokumentazio teknikoa egitea eta betetzea (patroiaren doikuntza, gertakariak, eta abar), gero artxibatzeko eta berriro erabili ahal izateko.
- ✓ Segurtasun- eta higie-ne-irizpideak betetzea:
- Jantzigintza-prozesuan, lanbidearekin lotzen diren lan-arriskuak identifikatzea, baita eszenako jantzietan aplikatutako materialen transformazioarekin lotzen diren arriskuak ere.
 - Lege-araudiarekin eta enpresak ezarritakoarekin lotzen diren higie-ne- eta osasun-arauak identifikatzea.
 - Barne- eta kanpo-jardueren garapenean arriskuak prebenitzeko prozedurak gainbegiratzea eta aplikatzea, ingurumenarekiko jarrera argia edukita.
 - Jantzeria egokia erabiltzea, lantegiko jarduerarako aproposa (mantalak, oinetakoak), baita enpresak adierazitakoa ere.
 - Norbera babesteko eta lan-arriskuak prebenitzeko baliabideak erabiltzea, egin beharreko jardueraren arabera (beturreko babesleak, metalezko eskularruak, maskarak –eszenako jantzietan eskuko estanzioa egin behar bada eta tinduak aplikatu behar badira–).
 - Lanbide-jardueraren ondoriozko betebeharrak eta eskubideak betetzea eta gauzatzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera eta alternatibak proposatuta, emaitzak hobetearren.
 - Ikuskizunetako jantziak mihiztatzeko berariazko prozesuetan, probetan eta akaberan emateko lanetan protokoloak aplikatzea.
- ✓ Egindako produktua aztertzea:
- Produktua egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratzea.
 - Proiektua lortutako emaitzaren arabera aintzatestea, bezeroek eta enpresak finkatutako kalitate-irizpideak egiaztatuta.
 - Erabilitako materialak eta baliabideak pertsonak edo enpresak eskatutako kalitatera egokitzea.
 - Modeloa osatzen duten lineak, formak, bolumenak eta elementuak kontratatutakoarekin bat datozela identifikatzea.
 - Modeloa bezeroaren tipologiaren arabera baloratzea, komunikazio argia eta ulergarria mantenduta.
 - Kontratututakoa betetzen ez duen edozein anomalia tekniko edo artistiko zuzentzea.
 - Produktua aurkeztea, kontserbatzea eta ematea, betiere enpresaren eta bezeroaren artean adostutakoaren arabera.
 - Lanaren emaitzei dagokien beharrezko dokumentazio teknikoa egitea eta betetzea (erabilitako patroiak, kontsumoak, gertakariak, eta abar), gero artxibatzeko eta berriro erabili ahal izateko.

4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (M ²) / 30 IKASLE	AZALERA (M ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Patroigintzako gela	120	90
Jantziak egiteko espazioa	200	140
Materialen laborategia	90	60

4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	- Eskola-altzariak (mahaiak, aulkiak, armairuak, arbela). - Tresneria eta bitarteko informatikoak (ordenagailuak sarean, berariazko programak). - Ikus-entzunezko tresneria eta baliabideak.
Patroigintzako gela	- Marrazketa-mahaia. - Aulkiak. - CAD-CAMerako tresneria duten informatika-postuak, sarean. - Digitalizatzeko taula, hankak dituen. - Plotter-a. - Laser inprimagailua. - Software-programak. - Proiektzio-kanoia. - Patroiak kopiatzeko mahaia. - Patroiatarako zulatzeko makina. - Kartoi eta paper-bilkariatarako euskarriak.
Jantziak egiteko espazioa	- Makina lau programagarria. - Owerlock makina, hiru harikoa. - Owerlock makina, lau harikoa. - Owerlock makina, bost harikoa. - Estaltzeko makina, 2 orratzekoa. - Arraste hirukoitzeko makina. - Alkandoretan botoi-zuloak egiteko makina. - Joskintzako botoi-zuloak egiteko makina. - Barrenak egiteko makina (puntada ikusezina). - Sigi-saga makina. - Aulki doigarria. - Xafla bertikaleko ebaketa-makina.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
	- Xafla zirkularreko ebaketa-makina. - Koltxoia zulatzeko makina (seinale-markatzailea). - Etiketa jartzeko eskuko makina. - Guraize elektrikoak. - Ebaketa-mahaia (ehunak hedatzeko eta ebakitzeko). - Aulki erregulagarria. - Trokel bidez ebakitzeko buruak. - Ebaketarako tresna multzoa (guraizeak, pesak eta pintzak, besteak beste). - Bost behatzeko sare-eskularruak. - Manikia (emakumezkoa, gizonezkoa eta haurra). - Presiozko krisket-ekipoa. - Botoiak forratzeko funtzio anitzeko tresneria. - Lepoak iraultzeko makina. - Etiketak inprimatzeko makina. - Termofinkatzeko makina. - Lisatzeko mahaia, xurgatzeko eta puzteko sistema duena, gehi lisaburdina. - Lisaburdin unibertsaleko mahaia eta lisaburdina. - Prentsa unibertsala. - Lisatzeko hainbat formatako jokia (josturak, emakumezkoa eta gizonezkoa). - Lurrun-sorgailua. - Arraboil multzoa, lautzeko makinak, mailuak eta larrurako lanabesak. - Brodatzeko makina, buru bakarrekkoa eta sei koloretakoa.
Materialen laborategia	- Mikroskopia - Doitasun-balantzak. - Hariak zenbakitzeko "aspe"-a. - Hariak zenbakitzeko "erromatarra". - Filokonoa. - Eskuzko tortsiometroa. - Pisurako doitasun-balantza. Mahai gaineko mikrotonoa.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena neurrirako eta ikuskizunetarako jantziak eta goi-mailako teknikariaren heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0276. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0585. Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak	Patroigintza eta jantzigintza	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0586. Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0587. Ikuskizunetako jantziak	Patroigintza eta jantzigintza	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0588. Joskintza klasikoa	Patroigintza eta jantzigintza	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0589. Moda eta jantzeko joerak	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0590. Neurriko jantziak diseinatzea	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0591. Neurriko jantziak egitea	Patroigintza eta jantzigintza	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0592. Neurriko jantzien eta ikuskizunetako proiektua	- Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak - Patroigintza eta jantzigintza	- Bigarren Irakaskuntzako irakaslea - Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
E-200. Ingeles teknikoa	Ingelesa	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0620. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0900. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0901. Lantokiko prestakuntza		- Bigarren Irakaskuntzako irakaslea - Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE LEGEAN EZARRITAKO HEZIKETA ZIKLOEN BARNEAN HARTZEN DIREN LANBIDE MODULUAK (LOGSE 1/1990)	NEURRIKO JANTZIAK ETA IKUSKIZUNETAKOAK HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE 2/2006)
Ehungintzako materialak, produktuak eta kalitate- saiakuntzak	0276. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak
Larruen azterketa eta kalitatea	
Patroigintzako goi-mailako teknikariaren tituluaren Lantokiko Prestakuntza	0901. Lantokiko prestakuntza

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC0474_3: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak, produktuak eta prozesuak aztertzea.	0276. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak
UC0912_3: Ehungintzan eta larrugintzan diseinua aztertu eta interpretatzea, eta produktua zehazten laguntzea.	0590. Neurriko jantziak diseinatzea
UC1513_2: Jantzkeraren zilueta, erabileretako eta ohituretako aldaketei buruzko informazioa bilatzea eta dokumentatzea.	0589. Moda eta jantzeko joerak
UC1514_3: Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea.	0586. Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea
UC1516_3: Neurrirako jantzietarako ebaketa, jantzigintza, proba eta akaberetako prozesuak gainbegiratzea eta egitea.	0591. Neurriko jantziak egitea 0588. Joskintza klasikoa
UC0913_3: Manikiaren gainean jantzien modeloak garatzea. UC1515_3: Neurrirako jantzietarako patroiak sortzea.	0585. Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak
UC1518_3: Jantzien garapena planifikatzea, proiektu artistikoaren jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik. UC1521_3: Ehunezko materialak eta ehunezkoak ez direnak transformatzea, ikuskizunetako jantzietan erabiltzeko.	0587. Ikuskizunetako jantziak
UC1519_3: Ikuskizunetarako jantzien modeloak, patroiak eta ebaketa egitea.	0585. Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak

7.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0276. Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako materialak	UC0474_3: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak, produktuak eta prozesuak aztertzea.
0590. Neurriko jantziak diseinatzea	UC0912_3: Ehungintzan eta larrugintzan diseinua aztertu eta interpretatzea, eta produktua zehazten laguntzea.

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0589. Moda eta janzteko joerak	UC1513_3: Jantzkeraren zilueta, erabileretako eta ohituretako aldaketei buruzko informazioa bilatzea eta dokumentatzea.
0586. Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea	UC1514_3: Jantziak neurrira egiteko baliabideak kudeatzea. UC1237_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.
0591. Neurriko jantziak egitea 0588. Joskintza klasikoa	UC1516_3: Neurrirako jantzietarako ebaketa, jantzigintza, proba eta akaberetako prozesuak gainbegiratzea eta egitea.
0587. Ikuskizunetako jantziak	UC1518_3: Jantzien garapena planifikatzea, proiektu artistikoaren jantzi-marrazkiak abiapuntu izanik. UC1521_3: Ehunezko materialak eta ehunezkoak ez direnak transformatzea, ikuskizunetako jantzietan erabiltzeko.
0585. Neurriko jantzigintzan modelatzeko eta patroiak egiteko teknikak	UC0913_3: Manikiaren gainean jantzien modeloak garatzea. UC1515_3: Neurrirako jantzietarako patroiak sortzea. UC1519_3: Ikuskizunetarako jantzien modeloak, patroiak eta ebaketa egitea.



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua
Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

Lehendakari Agirre, 184 • 48015 BILBAO
Tfno.: 94 447 40 37 • Fax: 94 447 38 62
e-mail: kei.ivac@euskalnet.net
www.kei-ivac.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO
IKASKUNTZAKO SAILBURUORDETZA
VICECONSEJERIA DE FORMACION
PROFESIONAL Y APRENDIZAJE PERMANENTE